

# GENERO-IKUSPEGIA ETA INTERSEKZIONALITATEA GIZARTE ESKU-HARTZEAN

Genero-sozializazioaren eragina gizarte-bazterketa  
larriko prozesuetan



5 GENERO  
BERDINTASUNA



 **Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



BERDINTASUNA + IGUALDAD

**Bizitegi**  
Por una sociedad sin exclusiones  
Bazterturik gabeko gizarterantz

**eraikiz kolektiboa**  
Innovar para la inclusión social desde la participación

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK SUSTATUTAKO EMAKUMEEN  
ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO EKIMENAK  
INICIATIVAS PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES  
APOYADAS POR LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA





# GENERO-IKUSPEGIA ETA INTERSEKZIONALITATEA GIZARTE ESKU-HARTZEAN

Genero-sozializazioaren eragina gizarte-bazterketa  
larriko prozesuetan



5 GENERO  
BERDINTASUNA



 **Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



BERDINTASUNA + IGUALDAD

**Bizitegi**  
Por una sociedad sin exclusiones  
Bazterturik gabeko gizarterantz

**eraikiz kolektiboa**  
Innovar para la inclusión social desde la participación

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK SUSTATUTAKO EMAKUMEEN  
ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO EKIMENAK  
INICIATIVAS PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES  
APOYADAS POR LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

**Argitaraldia:**

1.a, 2022ko abendua

**Ale kopurua:**

200 ale

**Egilea:****Bizitegi**

Txosten hau Bizitegiko esku-hartzeen arloko profesionalek saio batzuetan egindako lanaren ondorioa da. Saioak prestakuntzakoak eta kasu-azterketari buruzkoak ziren (generoaren eta interseksionalitatearen ikuspegitik), eta Eraikiz Kolektiboko Aitziber Bañuelos Ganuzak eman zituen

**Proiektu-taldea:**

Aitziber Bañuelos Ganuza

Pablo Ruiz Errea

Mónica Fandiño López

Elena Martin Rasines

**Argitaratzailea:**

Bizitegi

Gizarte egoitza. Langaran 14, 48004 Bilbao Bizkaia

**Inprimaketa:**

Printhus

**© BIZITEGI 2022**

Dokumentu honek copyright-a du jabetza intelektuala babesteko. Hala ere, Bizitegik ahalik eta gehien zabaltzea nahi du, eta, beraz, kopiatzeko, deskargatzeko edo pertsona fisikoen artean banatzeko baimena ematen dugu, erabilera pertsonalerako bada eta irabazi asmorik gabe egiten bada, eta betiere jatorria eta egiletza aipatzen badira. Beste edozein erabilera edo banaketarako, Bizitegiren baimena behar da

**[www.bizitegi.org](http://www.bizitegi.org)**

# Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b> .....	<b>5</b>
<b>2. Metodologia</b> .....	<b>9</b>
<b>3. Gizarte esku-hartzea genero-ikuspegitik</b> .....	<b>12</b>
<b>3.1. Generoa eta interseksionalitatea</b> .....	<b>14</b>
<b>3.2. Bizitzako Gertakari Estresagarriak</b> .....	<b>15</b>
3.2.1. Bizitzako gertakari estresagarriak: bazterketa larriko egoeraren sorrera eta sostengua.	
3.2.2. Gizarte-bazterketa larriko egoeran dauden emakumeek Bizitzako Gertakari Estresagarri gehiago dituzte.	
3.2.3. Bizitzako Gertakari Estresagarriak indarkeria matxistak jasan dituzten emakumeengan, eta haien ondorio gisa.	
3.2.4. Bizitzako Gertakari Estresagarriak gizonengan, genero-sozializazioarekin eta bete gabeko genero-aginduekin lotuta, baita indarkeria matxistekin ere.	
3.2.5. Bizitzako Gertakari Estresagarriak genero-azterketaren bidez berrinterpretatzea.	
<b>4. Genero-aginduak gizarte-bazterketa hauspotzen duten faktore gisa ....</b>	<b>19</b>
<b>4.1. Nola eraikitzen garen gizon eta emakume gisa, genero-sozializazioaren bidez: Genero-aginduen mapa</b> .....	<b>20</b>
4.1.1. Gizontasun hegemonikoari lotutako balioak, kalitateak eta portaerak	
4.1.2. Genero-aginduen mapa emakumeengan	
<b>4.2. Akonpainamendua egiten diegun pertsonen bazterketa larriko prozesuetan eragiten duten genero-aginduak</b> .....	<b>27</b>
4.2.1. Genero-aginduak bazterketa larriko egoeran dauden gizonengan	
4.2.2. Genero-aginduak bazterketa larriko egoeran dauden emakumeengan	
<b>4.3. Gogoetarako eta eztabaidarako elementuak</b> .....	<b>38</b>

<b>5. Kasuen azterketa genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektionaletik...</b>	<b>40</b>
1. kasua. Feminitate ez-normatiboari buruzko hausnarketak.....	41
2. kasua. Gizontasun hegemonikoa vs. bazterketa larriko gizonen errealitatea.....	47
3. kasua. Tratu txarrak haurtzaroan: bazterketa-prozesuetan duten eragina....	50
<b>6. Generoaren inguruko gatazka-egoeren analisisa .....</b>	<b>56</b>
1. egoera: Hilekoa maskulinizatutako espazio batean. ....	57
2. egoera: Zerbitzuan laguntza ematen zaien gizon eta emakume baten arteko eraso.....	59
3. egoera: Gaua igarotzeko gaueko zerbitzua bezalako espazio kolektibo batean emakumeak egoteari buruzko auzia.....	61
4. egoera: Kalean lan egiten duten profesionalen ibilbideak.....	62
5. egoera: Laguntza jasotzen duen emakumeetako batek indarkeria-egoerak kontatu, eta egun gutxira, badirudi ez dela gogoratzen.....	64
6. egoera: Nola jokatu eraso matxista baten lekuko izanik.....	65
7. egoera: Genero indarkeria dagoenean bikotearekin esku hartzea. ....	67
8. egoera: Amatasun-rola betetzeko, rol profesionalaren ordeztu, emakumeek ustez duten gaitasuna aipatzea.....	68
9. egoera: Lankide profesional bati egindako sexu-erasoaren aurrekariak .....	69
10. egoera: Emakume hezitzaileei hitz egiteko gizonak erabiltzen duten hizkuntza.....	70
11. egoera: Emakumearen gorputzari buruzko erreferentziak, emakumearen hipersexualizazioa, hainbat baliabidetan lagundutako gizonen egina.....	71
<b>7. Bibliografia.....</b>	<b>73</b>

# 1. SARRERA

Gizarte esku-hartzearen ezaugarria da zaurgarritasun handiko bizi-egoeretan dauden pertsonen laguntzea beren bizi-kalitatea hobetzen. Beren inguruabarren konplexutasunak ikuspegi profesional zabala eskatzen du, genero-ikuspegia<sup>1</sup> eta ikuspegi interseksionala<sup>2</sup> barne hartuko dituen. Genero-aginduek<sup>3</sup> betetzen zailak diren bizi-espektatibak dakartzate, eta betetzen ez badira, frustrazioa eta etsipena sortzen dira; horrek sakondu egiten ditu bazterketa-prozesuak bultzatzen dituzten arazoak. Egoera horretan esku hartzen duten faktoreak hobeto ulertzen lagunduko du prozesu horiek pertsona bakoitzaren genero-esperientzietatik abiatuta aztertzeak, nortasuna osatzen duten beste ezaugarri batzuekin batera, eta jakinik hori guztia sexualitate pertsonal jakin batek zeharkatzen duela. Hori dela eta, errespetuzko laguntza emateko funtsezko giltzarriak ematen ditugu, bizitza on eta jasangarriarekiko onarpenetik eta tratu onetik abiatuta.

“Genero-ikuspegia eta interseksionalitatea gizarte esku-hartzean. Genero-sozializazioaren eragina gizarte-bazterketa larriko prozesuetan. Askotariko identitateak, askotariko esku-hartzeak.” txostena 2020, 2021 eta 2022. urteetan Bizitegiko esku-hartze arloko profesionalekin egindako genero- eta interseksionalitate-ikuspegiko prestakuntza-prozesuaren ondoren idatzi da.

Pertsonekin lan egiteko eta beren prozesuetan laguntzeko, nor diren jakin eta ulertu behar da. Horrela, eta beren bizi-esperientziaz desjabetu gabe, ulertuko dugu zein diren laguntza eskatzera eraman dituzten gertaerak, eta haien nahiak eta beharrak zein diren entzuten jakingo dugu.

Haiekin hasten dugun bidean, kontuan hartu behar dugu nola osatu den haien identitatea eta nola zeharkatzen duen sexualitateak. OMEren arabera, sexualitatea gizakiaren funtsezko dimentsio bat da, generoa, sexu-identitateak, orientazioa, erotismoa, lotura afektiboak eta ugalketa barne hartzen dituen. Pentsamenduen, fantasien, desiren, sinesmenen, jarreraren, balioen, jardueren, praktiken, rolen eta harremanen bidez adierazten da. Sexualitatea faktore biologiko, psikologiko, sozioekonomiko, kultural, etiko eta erlijioso edo espiritualen arteko elkarrekintzaren emaitza da.

Pertsona bere sexualitatean garatzen da funtsezko prozesu batetik abiatuta: sozializazioa. Sozializazioa ez da neutroa. Hasiera-hasieratik, pertsonaren ingurune afektibo eta sozialak sexu-genero sistema bitar (gizon heterosexuala edo emakume heterosexuala) batean kokatzen du bakoitza, baztertzalea ere badena (bata bestearen kontrakoa da, eta ez dago aukerarik beste modu batekoa izateko), eta horrek norberaren bizi-ziklo

---

1 NBE Emakumeak erakundeak honela definitzen du “genero-ikuspegia”: pertsonen aukera, rol eta elkarreragin sozialetan generoak duen eragina behatzean oinarritzen den ikusteko edo aztertze modua. Ikusteko modu horri esker, genero-azterketa bat egin dezakegu, eta, gero, genero-ikuspegia zeharkako bihurtu, proposatutako programa edo politika batean edo erakunde batean.

2 Interseksionalitatea tresna analitiko bat da, eta onartzen du desberdintasun sistemikoak hainbat gizarte-faktoreen gainjartzetik sortzen direla, hala nola generoa, etnia eta gizarte-klasea. Ondorioz, pertsona batek une eta leku jakin batean dituen desabantailak eta pribilegioak ezin dira ulertu bere identitatearen elementuak era isolatuan aztertuz. Aitzitik, hari eragiten dioten botere-harremanen multzoari erreparatu behar zaio, baita makro mailako indarrei, hala nola iragan kolonialari eta pobrezari; eta mikro mailako indarrei ere, hala nola pertsona baten osasun-egoerari eta haren familiaren edo komunitatearen egiturari.

3 Genero-aginduek “Arau inplizituak dira, islatzen dutenak zer izan behar genukeen gizon eta emakumeek, eta ez nahitaez zer garen. Sozializazio bereizi baten bidez transmititzen dira: familian ikusitako eta ikasitako rola eta portaerak, eskolan eta komunikabideetan jasotako mezuak, etab.” Sánchez, A.



osoa markatuko du. Genero-aginduetan oinarritzen den genero-sozializazioaz ari gara. Sozialki esleitutako generoaren arabera, agindu horiek pertsona orientatuko dute, bere generoari atxikitako rolak bete ditzan, modu jakin batean erlazona dadin eta portaera jakin bat izan dezan, eta genero-helburuak bete ditzan, horrela “bizitza egokia izateko eta errealizatuta sentitzeko”.

Generoaren sozializazioak, abiapuntuan, gizonezko gisa esleitutako pertsonen mende jartzen ditu emakume gisa esleitutako pertsonak, eta lehenengoei pribilegio handiagoa ematen die. Bestalde, ez ditu kontuan hartzen izateko eta harremanak garatzeko beste modu batzuk, arauari men egiten ez dion guztia ezabatuz. Ezin badu ezabatu, patologizatu egiten du; bestela, zigortu egiten du, edo, bestela, deuseztatzen saiatzen da.

Patriarkatuaren logika bitar eta baztertzaitetik emakume izateko eta gizon izateko modu horiek ez datoz bat gizakiaren ezaugarri den aniztasunarekin eta gizaki bakoitzak bere garapen pertsonala lortzeko duen desioarekin. Beraz, pertsonak asegabetsun- eta frustrazio-egoeran jartzen ditu, beren identitatearen, harremanen eta bizi-proiektuaren eraikuntzan sozialki ezarritako estandar batzuetara iritsi nahi baitute. Estandar horiek gutxitan betetzen dira, edo pertsona gutxik lortzen dituzte. Gainera, kontuan hartu behar ditugu gizonen eta emakumeen artean ezartzen diren botere-dinamikak. Alegia, gizonek pribilegioak dituztela gizon izateagatik soilik, eta pribilegio horiek emakumeengan sostengatzen direla, beren gorputzen, sexu-energiaren, zaintza-lanaren eta, batzuetan, beren bizitzaren kontura.

Gizarte-bazterketa larriaren esparruan lan egiten duten profesionalek ikusi dute akonpainamendua jasotzen duten pertsonengan bete gabeko espektatiba pertsonal eta sozialek nola sortzen dituzten isolamendua, estigma eta baliorik ez izatearen autopertzepzioa.

Esleitutako rolak betetzen ez direnean, pertsonak jasaten dituen ondorioek pisu handia hartzen dute; batzuetan, pisu handiegia izaten da gora egin eta ongizate- eta osasun-maila onargarriei eutsi ahal izateko. Bizitza on eta jasangarria bizitzeko.

Genero-aginduak betetzean behin eta berriro porrot egitearen bizi-esperientziak pertsonak gizartearen bazterretara eramaten ditu, eta gure eguneroko beharrak asetzen dituzten sostengu- eta zaintza-dinamiketarik kanpo gelditzen dira; horren adierazle dramatikoenetako batzuk dira bazterketa larriko egoeran dauden pertsonak. Amaia Pérez Orozkoren hitzetan, “pertsonen ongizate fisiko eta emozionalaren amaigabeko berreraikitze-prozesua” da hori. Pertsona horiek ez dituzte “bizitzak funtzionatzeko beharrezkoak diren gauza horiek guztiak”<sup>4</sup>.

Horregatik, gizarte-bazterkeriako prozesuak pertsonen genero-esperientzietatik abiatuta aztertzeak funtsezko gakoak emango dizkigu laguntza egokia emateko.

---

4 Pérez Orozko, Amaia (2020) “De que hablamos cuando hablamos de cuidados”, Diputatuen Kongresuko Berreraikitze Batzordea.

Esku-hartzeak ibilbide partekatua izan behar du, eta bestetasunarekiko errespetuzkoa; profesionalak gai izan behar du akonpainatzen duen pertsona bere nortasun anitzen bidez ikusteko, eta ulertu behar du generoa beste zapalkuntza-ardatz batzuekin gurutzatzeak errealitate konplexu eta bakarrak osatzen dituela. Errealitate horiei babes zehatzak eman behar dizkiegu, pertsonak lehen aipatu ditugun “gauza horiek guztiak” izan ditzan, horiek errazten baitute bizimodu ona lortzeko bidea.

Lan honen bidez, esku-hartze sozialean akonpainatzen ditugun pertsonen bazterketa-prozesuetan genero-sozializazioak beste diskriminazio batzuekin batera duen eragin handia ulertzen sakondu nahi da. Helburua da pertsona guztiak erdigunean jarriko dituen narratiba kolektibo berri bat eraikitzeko espazioak partekatzeko beharra azpimarratzea.

Azkenik, nabarmendu nahi dugu garrantzitsua dela gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen eta esku-hartze psikosozialaren erreferentzia-esparruak zabaltzea, lehendik zeudenei etika eta pedagogia feminista gehituz, gizakia, haren harremanak eta egungo testuinguru soziokulturalean nortasuna nola eratzen den ulertzeko nahitaezko paradigma gisa.

## **2. METODOLOGIA**

Txosten honetan jasotzen diren edukiak Bizitegi elkarteko profesionalek 2020, 2021 eta 2022. urteetan hiru prestakuntza-eremutan egindako lanaren emaitza dira: 70 (45 emakume eta 25 gizon), 73 (22 gizon eta 51 emakume) eta 69 (21 gizon eta 48 emakume) profesional, hurrenez hurren.

2020an lau prestakuntza-saio egin ziren, eta bakoitzean 15-20 profesionalek hartu zuten parte. Talde mistoak dira generoari dagokionez, eta heterogeneoak, rol profesionalei eta lan egiten zuten zerbitzu-sektoreei dagokienez. Elkarteko zerbitzu guztietako profesionalek parte hartu zuten. Saio horietan, gogoeta- eta elkarrizketa-prozesu bat proposatu zitzairen, genero-aginduak aztertzeko:

- Beren genero-bizipenean.
- Akonpainatzen dituzten pertsonen genero-bizipenean.
- Lan-taldeen dinamikan.

Profesionalek bi gai landu zituzten saioetan:

- Nola eraikitzen garen gizon eta emakume gisa, genero-sozializazioaren bidez. Genero-aginduen mapa.
- Erakundeak akonpainamendua egiten dien pertsonen bazterketa larriko prozesuetan eragin handiena duten genero-aginduak.

2021ean eta 2022an egindako prestakuntzan, Kasuen Azterketa eta hainbat egoeraren problematizazioa erabili ziren. Egoera horiek profesionalen eguneroko lanaren esparruan gertatzen ziren, eta beharrezkotzat jotzen zen genero-azterketatik eta ikuspegi interseksionaletik aztertzea.

Saio mistoak egin ziren generoari dagokionez, eta aurreko urtean ez bezala, saio bakoitzean erakundeko esku-hartze unitate bereko profesionalek parte hartu zuten. Talde bakoitzeko kide guztiek planteatutako kasuak eta egoerak ezagutzea izan zen helburua.

Aurkeztutako kasu eta egoera horiek balio izan zuten genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala ezartzen jarraitzeko, feminismitik proposatzen den bezala.

Elkarteak laguntzen duen kolektiboaren ezaugarri garrantzitsu bat da pertsonen % 67 gizonetzkoak direla eta % 33 emakumezkoak. Gehienak bazterketa larriko egoeran daude, eta hainbat zapalkuntza mota jasaten dituzte.

Elementu hori funtsezkoa izan zen edukiak lantzeko orduan; izan ere, genero-analisiari eta feminismoaren ekarpenei esker emakumeekin egindako lana eboluzionatuz eta hobetuz joan den bitartean, uste dugu oraindik asko dagoela egiteko gizonekin eta

beste kolektibo batzuekin egindako lanari dagokionez. Gizarte esku-hartzean gainditu gabeko irakasgaia da, eta lehenbailehen heldu behar zaio.

Talde-lanean, hausnarketa eta elkarrizketa funtsezko estrategiak izan dira lankidetzazko ezagutza eraikitzeko, parte hartu duten profesionalen errealitatetik abiatuta.

Azpimarratu behar da arlo horretako prestakuntzak dakarrela profesionalak egiten duen esku-hartzea auzitan jartzea, bai eta haren begirada ere, hura mugitzen duten balioak, eta generoaren eta beste diskriminazio-ardatz batzuen bizipenarekin duen harremana, hala nola arrazakeria, aporofobia, klasismoa... baita indarkeria matxistekin duen harremana ere.

Profesional bakoitzak egindako ahalegina oso baliagarria izan da txosten hau eta bertan agertzen diren edukiak egiteko.

Prestakuntza horren helburua kasuen kudeaketan eta banakako lan-plangintzen prestakuntzan genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzea izan zen. Bigarren helburua, berriz, ikuspegi horretatik lan-taldeen dinamikak aztertzea izan zen, sexismoak eragindako tentsioei aurre egiteko eta horri buruzko gatazka ezkutuak konpontzeko tresnak eskuratzeko.



# **3. GIZARTE ESKU-HARTZEA GENERO-IKUSPEGITIK**

Genero-ikuspegiaz ari garenean, jaiotzen garenetik pertsonok jasaten dugun tratu desberdintasuna azpimarratzeaz ari gara. Testuinguru soziokulturala aztertzea da, bertan garatzen baikara pertsonak, eta oposizioz eraikitako giza identitatearen ulermen bitarretik abiatuta esleitzen zaigun generoaren arabera (emakumea edo gizonezkoa) kokatzen garen tokiari erreparatzea. Bata edo bestea, bestelako aukerarik gabe.

Generoaz hitz egiten dugunean, ez gara ari jaiotzean hartzen dugun gizarte-posizioaz bakarrik, baita sozializatuak garen moduz eta prozesu horretan “izateko modu idealtzat” transmititzen dizkiguten aginduez ere. Gure bizitzan zehar agindu horiek betetzeko borroka egin behar dugu.

Agindua betetzeko, gure energiak, ametsak eta gure bizi-proiektua inbertitu behar ditugu. Prozesu hori behin eta berriz ebaluatuko dugu pertsonalki nahiz sozialki, eta hasierako egoerara itzuliko gara behin eta berriz. Mendekotasun- edo pribilegio-posizioa indartuko du, estatusaren eta gizarte-onarpenaren mailak igotzera edo jaistera eramango gaitu, inposatutako irudia elikatuko du eta, horrekin batera, segurtasun pertsonal faltuaren espektatibak betetzearen sentsazioa elikatuko du, hartutako erabakiak sendotuz. Konbentzituko gaitu bizi garen gizarteak (patriarkalak) proposatutakoa egokia dela, bizitza on batera eraman ala ez. Ikasitakoa amaigabeko espiral batean errepikatzen animatuko gaitu.

Genero-aginduek ondoez handia sortzen dute; pertsona batzuei bizia kentzeraino. Batez ere, emakumeak eta normatiboak ez diren beste kolektiboak dira indarkeria estruktural, sinboliko eta, askotan, zuzeneko horren biktima nagusiak. Baina Bizitegin laguntzen diegun pertsonen erreparatzen badiegu, ikusten dugun arren emakumeek gehiago sufritzen dutela, sozializazio zurrun eta toxiko baten ondorioak pairatzen dituzten gizonak badaude, haien laguntzen die elkarrekin. Bazterketa larriko egoeran dauden gizonen kasuan, ikustean aginduz agindu porrot egin dutela gizon duintzat hartzeko gutxienekoak lortzean, ondoez hori indarkeria bihurtzen da; haien buruarekiko, beste pertsona batzuekiko indarkeria bihurtzen da, edo buru-gaixotasun eta gehiegizko kontsumo, etsipen eta, kasu batzuetan, beti gehiegi diren heriotza bihurtzen da.

Gizarte-bazterketa larrian dauden emakumeek eta gizonek pairatzen duten sufrimendua handia eta astuna da. Hein handi batean, orain bizi duten errealitate konplexura eraman dituzten Bizitzako Gertakari Estresagarriak<sup>5</sup> bete gabeko genero-aginduekin lotuta daude. Era berean, gizarte-bazterketa larrian daudela, lortzen zaila den etorkizuna imajinatzen jarraitzen dute, haien espektatibek genero-agindu sozialei lotuta jarraitzen badute, nahiz eta behar dutena gizon izateko beste modu batzuk ahalbidetzen dituzten bizitza-alternatibak diren.

Emakumeen bazterketa-prozesuak ezagutu behar ditugu, prozesu ikusezinak eta inbisibilizatuak baitira, eta emakumeen bila aritzen gara bazterketa-egoeran dauden

---

5 Bizitzako Gertakari Estresagarri deritze pertsonen bizitzan funtsezko zeregina duten esperientziei, askotan aldaketa esanguratsuak eragiten dituztenak (Vázquez, Panadero eta Martín, 2015) beren bizitzan, beren jokabidean eta beren buruarekin eta ingurunearekin erlazionatzeko moduan.

gizonen artean, baina oker gabiltza. Beste bazterketa mota bat bizi dute, eta modu ezberdinean eragiten diete indarkeriek; gizartearen, erakundeen eta profesionalen begiradak hain erraz antzematen ez dituen moduetan.

Bazterketa larrian dauden emakumeek beren bizi-zikloan jasaten dituzten indarkeria matxistak akonpainatu behar dira, eta bizirik ateratzen diren gainerako emakumeek jasotzen dituzten berme eta sinesgarritasun berberekin arta ditzaten zaindu behar dugu.

Funtsezkoa da genero-aginduek gizonengan duten benetako eragina aztertzea, baita bizitza jasanezina eragiten dieten gizarte-espektatiba eskuraezinak zeintzuk diren ere.

Hori guztia islatu behar da egiten ditugun balorazioetan eta kolektibo horiekin esku hartzeko prozesuen diseinuan, gure praxia hobetze aldera.

Ikuspegi zabal, ulerkor, eskuzabal eta errukitsu batekin, saiatu behar gara “emakume ona” eta “probetxuzko gizona” izan behar horretatik datorren larritasuna gero eta pisu arinagoa izan dadin akonpainatzen ari garen pertsonen bizitzetan.

### **3.1. Generoa eta interseksionalitatea**

Genero-ikuspegiak eta ikuspegi interseksionalak ez ditu egoerak konpontzen. Baina gure lana hobeto egiteko funtsezko gakoak ematen dizkigu.

Lehenik eta behin, egoera horretan esku hartzen duten faktoreak hobeto ulertzen lagunduko digu, bai eta pertsonen bizi-kalitatea hobetuko duten prozesuak sustatzean kontuan hartu behar duguna ere. Pertsona horiek erabakiko dute nola, zein erritmotan eta zein unetan. Guk, gure aldetik, erabakitzen dutenerako egon behar dugu hor.

Bestalde, egiten dugun esku-hartzean zehaztasun handiagoa lortzen lagunduko digu. Praktika hori, neurri handi batean, kasuan kasuko pertsonaren bizi egoeraren hasierako ebaluazioaren egokitasunaren araberakoa izango da. Hori dela eta, gure begiradak ez badu generoaren eta interseksionalitatearen analisisa kontuan hartzen, ebaluazioa partziala izango da, eta gure esku-hartzea ere bai.

Akonpainatzen ditugun pertsonen egoera ulertzeko, ezin gara generoaren faktorea aztertzer mugatu. Ez da nahikoa. Ikuspegi poliedrikoa izan behar dugu; horrek lagunduko digu ulertzen nola generoak, pertsona horren beste ezaugarri batzuekin batera, bere bizi-esperientziarekin eta gaur egungo egoerarekin batera, orain dena izatera, dagoen lekuan egotera eta egiten duena egitera eramaten duen. Pertsona ezagutzea funtsezkoa da errespetuzko akonpainamendua egiteko, onarpenetik eta tratu onetik abiatuta.

Generotik abiatutako azterketa bat egin behar dugu, eta ikuspegi interseksionala erabili behar dugu, baita gizonekin lan egiteko ere. Bi arrazoi nagusi daude horretarako: Batetik, arestian aipatu bezala, Bizitegik akonpainamendua egiten dien pertsonen % 67 inguru

gizonezkoak direlako. Bestetik, gizon horien bizi-ibilbideak genero-marka nabarmena duten porrotez josita daudelako. Akonpainatzen ditugun pertsonak gizon, emakume edo pertsona ez-bitar gisa ikusten baditugu, beren jarreran eta portaeran horrela agertzen badira, hori kontuan izan behar dugu diseinatzen dugun esku-hartzean, egiten dugun akonpainamenduan eta baita prozesu horretan pertsona erreferente eta esanguratsu gisa nolako eredia garen pentsatzean ere.

Halaber, gogoeta egin behar dugu generoak nola eragiten digun guri, pertsona gisa nahiz profesional gisa. Ez dezagun ahaztu gure lanak zer ikusia duela gu garenarekin, hortik abiatuta egiten baitugu lan, kokatuta gauden tokitik. Eta egite horretan sartzen dira, halaber, esku-hartzea nola planteatzen dugun, taldearekin eta laguntzen ditugun pertsonekin nola erlazionatzen garen, eta prozesuak eta gure zeregina nola ebaluatzen ditugun. Generoaren eta interseksionalitatearen ikuspegitik aztertzeak lagundu egingo digu esku-hartzeak profesionaleri eta taldeari edo laguntzen diegun pertsoneri sor diezazkiekeen tentsioak edo gatazkak identifikatzen.

Azkenik, pentsatu behar dugu ea profesional bakoitzaren esku-hartze ereduarekin eta praktikarekin ekitatea eta jabetzea sustatzen ari garen, edo, alderantziz, estereotipoak, rola eta desberdintasuna betikotzen ari garen. Genero-analisiaren bidez, hobeto erantzun diezaiekegu galdera horiei. Gizontasun toxikoa deseraikitzekeo estrategiak eta ekintzak aurkitzen lagunduko digu, botere-dinamikak praktika horizontalago, atseginago eta tratu hobeeekin ordezkatzeko, eta bazterretan dauden pertsonen eskubideak berreskuratzen eta leheneratzen lagunduko duen esku-hartzea egiteko.

## 3.2. Bizitzako Gertakari Estresagarriak

### 3.2.1. Bizitzako gertakari estresagarriak: bazterketa larriko egoeraren sorrera eta sostengua

Gure komunitate-testuinguruan gizarte-bazterketa larrian dauden pertsonekin esku-hartzeak egitean, kontuan hartu behar ditugu Bizitzako Gertakari Estresagarriak, esku-hartzearen unean dauden egoerara eraman dituen bizi-ibilbidean eragina izan duten faktore gisa.

Bazterketa larrian dauden pertsonen, batez ere etxegabeek<sup>6</sup>, bizitzan zehar batez beste 9 Bizitzako Gertakari Estresagarri izaten dituzte, hau da, biztanleria osoaren batezbestekoa baino gehiago. Egoera horren jatorria izan daitezke gertakari horiek, edo egoera horri eusten laguntzen diotenak, betiere beste faktore batzuekin batera. Zaurgarritasun-faktore pertsonalak, sozialak eta inguruneak metatzearen,

---

6 FEANTSAk (1995) honela definitzen ditu pertsona etxegabeak: "beren egoera pertsonalera egokituta dagoen, iraunkorra den eta bizikidetzarako esparru egonkorra eskaintzen duen bizileku egokia eskuratu edo mantendu ezin duten pertsonak, dela arrazoi ekonomikoengatik, dela beste gizarte-oztopo batzuegatik, dela bizimodu autonomoa izateko zailtasun pertsonalak dituztelako." Erakunde horrek ETHOS tipologia (etxegabeen eta etxebizitza-bazterkeriaren Europako tipologia) garatu zuen 2005ean, etxebizitza-bazterkeriaren adierazle-sistema gisa funtzionatuko zuen erreferentzia-esparru kontzeptual gisa. Bertan etxegabeen eta etxebizitza-bazterkeriaren lau kategoria proposatzen dira: aterperik gabe, etxerik gabe, segurtasunik ez duen etxebizitza eta etxebizitza desegokia.

gainjartzearen eta/edo konbinatzearen prozesu dinamikoek osatzen dute bazterketa larriko egoera (Subirats, 2004).

### **3.2.2. Gizarte-bazterketa larriko egoeran dauden emakumeek Bizitzako Gertakari Estresagarri gehiago dituzte**

Hainbat azterlanek eta Bizitegiren esperientziak erakutsi dutenez, elkar-tearen baliabideetara bazterkeria larriko egoeran, hau da, etxe faltarekin, gizarte- eta familia-sareak haustearekin, buruko gaixotasunekin eta alkoholaren eta toxikoen kontsumoarekin zerikusia duten egoeretan iristen diren emakumeen ehunekoa gizonena baino askoz txikiagoa da. Emakumeak % 20-30 artean dira, eta, gainera, osasun fisiko, psikologiko eta soziala oso kaltetuta dutela iristen dira. Horrek etorkizuneko emantzipazio-prozesuari aurre egiteko gaitasuna gutxitzea dakar.

Vázquezek, Rodríguezek, Rocak eta Panaderok (2016) egindako azterketan adierazten denez, bazterketa larrian dauden gizonen batez beste 9 Bizitzako Gertakari Estresagarri jasan dituzte beren bizi-zikloan, eta egoera horretan dauden emakumeek, berriz, 11 (litekeena da horietako 6 adinez nagusi izan aurretik gertatu izana). Esperientzia horiekin ez dute laguntzarik jaso, eta, beraz, ez dira ez landu ez beren bizitzako historian txertatu. Horrek eragin handia izan du eta bazterketa-egoerara eraman ditu, erakundeak artatu behar izatera eraman dituen baldintzetara.

### **3.2.3. Bizitzako Gertakari Estresagarriak indarkeria matxistak jasan dituzten emakumeengan, eta haien ondorio gisa**

Alde batetik, emakumeek jasaten dituzten Bizitzako Gertakari Estresagarriak, neurri handi batean, jatorrizko familian bizitako genero-indarkeriarekin lotuta daude, eta familia barruko indarkeriarekin, hala nola abandonua eta zabarkeria, tratu txarrak edo abusu fisiko eta/edo emozionala edo haurren sexu-abusua (familia barrukoa nahiz kanpokoa). Zenbait ikerketaren arabera, esperientzia horiek lotura dute, kasuen ehuneko handi samarrean, amak, aita edo biek alkohola eta toxikoak kontsumitzearekin.

Bigarrenik, bazterketa larrian dauden emakumeek indarkeria matxistak jasateko arriskua dute gaztaroan eta helduaroan garatzen dituzten harreman afektibo-sexualetan, bai eta eremu publikoetan edo are erakundeen esku daudenean sexu-indarkeria jasatekoa ere.

Hirugarrenik, buru-gaixotasunak, mendekotasuna eta psikiatrikoetan sartzea eragiten duten biktimizazio ugarien ondorioz emakumeek pairatzen dituzten Bizitzako Gertakari Estresagarriak daude.

Esan dezakegu, Bizitegik akonpainatzen dituen emakumeen bazterketa larriko prozesuak ulertzeko, interesgarria izango litzatekeela esperientzia traumatiko horiek haurtzaroan, nerabezaroan eta helduaroan duten eragina ezagutzea, lotura estua baitute emakume izatearekin eta genero-sozializazioarekin.



### **3.2.4. Bizitzako Gertakari Estresagarriak gizonengan, genero-sozializazioarekin eta bete gabeko genero-aginduekin lotuta, baita indarkeria matxistekin ere**

Bestalde, gizonek bizi dituzten Bizitzako Gertakari Estresagarriak ere bi norabidetan zeharkatzen ditu generoak. Batetik genero-sozializazioa dago, gizonak arriskutsu jokatzera eta araua urratzera bultzatzen dituen. Jokabide horiek istripu, kontsumo edo delituekin lotutako Bizitzako Gertakari Estresagarriak bizitzera bultza ditzakete, aurretik egoera sozial zaugarrian dauden pertsonen kasuetan.

Bigarrenik, gizarteak gizonen arrakasta sozialarekin lotzen dituen balioek (enplegua, erosteko ahalmena, familia, eta abar) eta gizontasun hegemonikoaren ezaugarriek (gogortasuna, ahultasunik eta emoziorik ez erakustea, gaitzuste, lehiakortasuna eta abar) zaildu egin dezakete Bizitzako Gertakari Estresagarriei modu egokian aurre egitea, bete gabeko genero-aginduengatik eta gizonengan onartzen ez diren gogoaldarteengatik, bai eta laguntza ez eskatzeagatik ere.

### **3.2.5. Bizitzako Gertakari Estresagarriak genero-azterketaren bidez berrinterpretatzea**

Bizitzako Gertakari Estresagarri baten aurrean, pertsonak ebaluazio edo estimazio kognitibo bat egiten du, eta gertaera baloratzen du, garrantzirik gabeko, positibo edo estresagarri gisa (kaltegarria/galerazkoa, mehatxuzkoa edo desafiozkoa izan daiteke), eta, ondoren, egoera estresagarriaren aurrean egin behar eta egin daitekeenaren balorazioa egiten du (aurre egitea<sup>7</sup>). Ebaluazio horren eta erabakitako aurre egiteko moduaren arabera, eragin desberdina izango du pertsonaren bizitzan, eta birmoldaketa sozial handiagoa edo txikiagoa egin beharko da, bere bizitzarekin aurrera egiteko.

Pertsona bakoitzak, gainera, genero-sozializaziotik abiatuta ere interpretatu eta baloratuko ditu Bizitzako Gertakari Estresagarriak. Adibidez, langabeziak, adingabeen zaintza galtzeak edo nahigabeko haurdunaldiak ez du esanahi bera gizon batentzat edo emakume batentzat; beraz, eragin desberdina izango du, eta ondorio ezberdinak izango ditu batentzat eta bestearentzat.

Lazarus-ek dioenez (1984), aurre egiteko prozesua ez da lineala, eta hasieran egindako balorazioa alda dezaketen ebaluazio berriak jaso ditzake gertakari estresagarriak, norbanakoak berak edo inguruneak emandako informazio berriaren edo aurre egiteko ahalegin kognitiboaren ondorioz (González, P. eta Castillo, M. D., 2010). Horregatik, garrantzitsua da akonpainatzen ditugun pertsonak beren erreferentzia-esparrua zabaldu ahal izatea, gizarte-bazterkeriara bultzatu dituzten bizitzako gertakari estresagarriei esanahi berri bat emateko, eta gertakari horiek lantzeko eta beren bizi-historietan integratzeko orientabideak ematea.

---

<sup>7</sup> Aurre egitea zenbait estrategia edo baliabide osatuko dituzten pentsamendu eta jokaerak praktikan jartzeko prozesua da, eta helburua Bizitzako Gertakari Estresagarrietara behar bezala egokitzea da.

Beraz, funtsezkoa da genero-analisiaren bidez ulertzea zer esanahi eta balio ematen dieten Bizitzako Gertakari Estresagarriei horiek bizi izan dituzten eta bizitzen ari diren eta guk akonpainatzen ditugun pertsonen (emakumeek, gizonek eta pertsona ez-bitarrek), ulertzeko nola eragin dien, nola bideratu bizitakoaren berrebaluazioa, eta nola erraztu beren errealitatera egokitutako prozesuak, izateko alternatibak eskainiz, hainbeste ondoez eragin duten agindu sozialetatik urrun.

**4. GENERO-AGINDUAK GIZARTE-  
BAZTERKETA HAUSPOTZEN DUTEN  
FAKTORE GISA**

Atal honetan, hasierako prestakuntza-saioetan profesionalek landutako bi gaiak buruzko ondorio nagusiak biltzen dira. Lehenik eta behin, genero-sozializazioan eta gizon eta emakumeei esleitutako ezaugarri eta roletan sakonduko dugu. Bigarrenik, bazterketa larrian dauden pertsonen bizi-zikloan eragin handiena duten genero-aginduak aztertuko ditugu.

Horren guztiaren xedea da generoaren eta interseksionalitatearen ikuspegitik gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeak diseinatzeko eta akonpainamenduak egiteko kontuan hartu beharreko koordinatu garrantzitsuenak ematea.

## **4.1. Nola eraikitzen garen gizon eta emakume gisa, genero-sozializazioaren bidez: Genero-aginduen mapa**

### **4.1.1. Gizontasun hegemonikoari lotutako balioak, kalitateak eta portaerak**

Gizonentzat, estatus soziala garrantzitsua da, eta lanaren, familiaren eta sexualitatearen bidez lortzen da. Lanak balio soziala eta erosteko ahalmena ematen dio, familia bere horretan helburu bat da, eta sexualitatea, berriz, gizontasuna berresteko modu bat.

Lanaz ari garenean, eremu publikoan eta soldataren truke egindako lanaz ari gara, eta gizonaren bizi-proiektuaren funtsezko zati izateko helburu argia duena. Emakumearentzat lana aukera bat da, baina gizonak ez du planteatzen lanik ez egitea. Lanaren lehentasuna finkoa da eta ezin da eztabaidatu, nahiz eta afektuak alde batera uztea ekar dezakeen. Lanean, anbizio handikoak eta lehiakorak izan behar dute taldeari begira. Era berean, erabakitzaile jokatu behar dute, eta familia-eremuan baino inplikazio handiagoa erakutsi.

Logika horretatik, gizon gisa, garrantzi handia ematen zaio profesionaltasunari, eta hori distantzia emozionalean oinarrituko da. Bestalde, distantzia hori identitate-ikurra da gizontasun hegemonikoan, eta gizonaren harreman guztiak markatuko ditu. Bere buruarekiko segurtasun gisa interpretatzen da: badaki nor den eta zer nahi duen, bere harremanetan ezer eman edo negoziatu gabe. Distantzia horren ondorioz, “ez dago eskuragarri” bestearen behar emozionaletarako.

Distantzia emozionala, gainera, emozioen adierazpen ezarekin ere lotuta dago, adierazpen hori ahultasunaren sinonimoa delarik. Zenbait emozio adieraztea onartzen zaie gizonari, hala nola haserrea, amorrua, eta gorrotoa. Hala, mota guztietako indarkeria darabilte, haurtzarotik hasita beren gizontasunari egindako erasoan aurkako defentsa-mekanismo gisa. Haurtzarotik jasotzen duten mezua honakoa da: “ez utzi inori zu jotzen, iraintzen, zure lekua kentzen, behertzen... defenda zaitetz, eta itzul iezaiozu” edo “irain baten aurrean edo laidogarriz jotzen duzunaren aurrean, ez utzi pasatzen, zalantzan jartzen zaituelako; beraz, defenda zaitetz (eraso eginez), hori egin dizunaren gainetik geratzeko eta bestea bere lekuan jartzeko”. Indarkeriaren erabilerari aurrerago helduko diogu berriz.

Familia arrakastaren sinonimo da. Helburu bat da, bere horretan. Familia zaintzak eta sostengua jasotzeko eremu gisa ikusten da, eta bertan, espazioa eta denbora gizonarenak dira, bere atsedenarekin, aisiarekin eta plazerrarekin lotutako beharrak asetzeko. Gizonak familian duen rola baliabide material eta ekonomikoen hornidurarekin lotuta dago, familiako kideen oinarrizko beharrak asetzeko.

Gizonak bere itxaropenak proiektatzen ditu familian, bere ondare gisa eta bera denaren jarraipen gisa ikusten du. Horregatik, familian gertatzen denaren kontrola funtsezkoa da, bere balioen eta ametsen hedadura izan dadin saiaturiko baita.

Familiak emandako estatusak zilegitasuna ematen dio arlo pribatuan duen botereari eta lidergoari, eta gizartean ere leku bat ematen dio, arlo publikoan bere eginkizunak betetzeko. Lanak eta familiak errespetua eta seriotasuna ematen diote gizonaren irudiarri.

Gizonak babesle eta hornitzaile gisa deskribatzen dira. Baliabide material eta babesgarrien hornitzaileak dira, emakumeek eta adingabeek eremu publikoan dituzten arriskuen aurrean. Familiakoen segurtasunaren bermatzaile gisa ikusten dute beren irudia, taldearen aurrean, eta emakumeak beste gizonengandik babesteko gizon bat behar duenaren uste sexista sendotzen dute. Hain zuzen ere, gizonak, baldin badakite emakume batek bikotekidea duela edo gizon batekin dagoela, ez dute hain erraz jazarriko edo erasotuko (nahiz eta beti ez den hala), edo, besterik gabe, interesa galduko dute.

Gizonak indartsu eta gogor itxura izan behar dute. Gogortasun hori lotuta dago, halaber, bizitzak ekartzen diona jasatearekin, kaltea gehiegi sentitu gabe. Gatazkak konpontzeko, egoera azkar gainditzea da estrategia, aurrerantz ihes egiten dute, eta emozioen mailan gertaera traumatikoak lantzeko zailtasunak dituzte.

Lidergoa eta erabakitzaileak izatea eskatzen zaie, zalantza gehiegi ez erakustea, ahuleziarik ez erakustea. Beste behin ere, ahulezia iritzi-aldaketarekin lotzen da, beste pertsona batzuei ematearekin eta emozioekin (gizon batentzat zaila da “eskerrik asko”, “barkatu” edo “maite zaitut” normaltasunez esatea). Beren jarrera eta ideiak argi izatea, jendaurrean hitz egiteko gaitasuna izatea, lotsarik eta zalantzarik ez izatea eskatzen zaie.

Sexualitatea, enplegua eta bikotekidea aurkitzea bezalako esparru konplexuetan ere modu sistematikoan aurrea hartzea eskatzen zaie gizonari. Gizartean, helburuak lortzeko orduan gizonen jarrera proaktibo hori oldarkorra izatea onartzen da, helmugari bidetara baino balio handiagoa ematen zaiolako. Hori lortzeko, eskura duen ia edozein baliabide erabili ahal izango du, bere estatus sozialean balio nagusiak baitira: sexu-jarduera, familia eta lana.

Naturaltzat jotzen da, ezeren gainetik, izaki arrazionalak eta iritziaren objektiboak direla, bai eta independenteak ere, eta nolabaiteko atxikimendu falta bat onargarritzat hartzen da. Arrazionaltasuna ezaugarri maskulinoa bihurtzen da, eta emoziotik bereizteraino baloratzen da.



Sexualitateaz hitz egiten badugu, kontuan izanik hezten gaituzten sexualitatea genitaleara mugatzen dela eta koitozentrismoa dela nagusiki, gizontasuna sexuan aktibo izatearekin lotzen da, eta sexu-praktiken eta -bikotekideen kopurua da lehentasuna.

Era berean, sexua gizonezkoen plazerraren sinonimoa da, eta emakumeen gorputza konkistatu beharreko eremutzat hartzen da, haien iritzia gehiegi kontuan hartu gabe. Gizonaren plazerra eta desira sexu-bikotekidearen gainetik nagusitzen dira, hura emakumea denean. Are gehiago, sexu-praktikak ez du zertan lotuta egon hartan parte hartzen duen beste pertsonaren nahiarekin (prostituzio-kontsumoaren kasuan gertatzen den bezala).

Gizonezkoen begiradari utzi egiten zaio emakumea bortxatzen, desiraren eta plazerraren objektutzat hartzen baita, eta ez zaio erantzukizunik eskatzen hori egitea erabakitzen duen gizonari. Portaera orokortua da, eta eragin handia du emakumeengan, bai indarkeria zuzenean jasaten dutenengan, bai kolektibo osoarengan. Bestalde, horrela jokatzeko ez duten gizonei zaila egiten zaie besteei aurre egitea, eta batzuetan konplizitatezkoa den isiltasuna nagusitzen da, jazarpena eta indarkeria baliatzen dituztenak babesten dituen isiltasuna.

Autoritatea eta boterea gizartean identitate maskulinoaren parte dira. Bere harreman eta testuinguruetan autoritaterik ez duen gizona ez da hain maskulinoz hartzen, eta mespretxuz deskribatzen da. Gizon batek autoritaterik proiektatzen ez badu, maneia garrantzitsutzat hartzen da, eta, beraz, "ez hain gizon". Horregatik, irudiak garrantzi handia hartzen du sozializazio-espazioetan agertzeko orduan. Autoritatea erakusteko zerikusia du adierazpen emozionalik ezarekin, harremanetan gutxiago ematearekin, eta erakutsi behar duen autoritate-figura horri kalte egiten dion orotatik urruntzearekin. Gehienetan, autoritatea murrizten duten ezaugarriak "femeninoarekin" lotutakoak dira.

Autoritateak esanahi zehatz bat du patriarkatuan: boterearen erabilera da. Boterea gizon bakoitzaren bizitzarako eta gainerako pertsonen bizitzarako garrantzitsutzat jotzen diren erabakietan. Sistema horretan, autoritatea eta boterea ustez balio gutxiago eta autodeterminazio-gaitasun gutxiago dutenekin gauzatzen dira: emakumeen, adin txikikoen eta beste kolektibo batzuetako kideen gainean.

Autoritate mota hori paternalista da. Gizonak erabiltzen du, moralitate handiagoa dutelakoan, objektibotasunetik eta arrazionaltasunetik irizpenak emateko gai dela duelakoan, emozioekin eta harremanekin lotzen den emakumearekin kontrajarriz.

Indarkeria gai garrantzitsua da gizontasunarentzat. Genero-sozializazioak gizonak doktrinatzeko beren gizontasuna, estatusa eta haiena dela irizten duten guztia defendatzeko<sup>8</sup>. Defentsa horretan, zilegitutzat jotzen da indarkeria erabiltzea, hainbat modu eta intentsitate maila desberdinetan. Indarkeria erabiltzea zilegi da une

---

8 Izan daitezke ondasunak eta zerbitzuak, espazioak, denborak edo pertsonak. Ez dezagun ahaztu gure gizartean, duela 50 bat urte arte, emakumea eta seme-alabak senarraren eta aitaren jabetzakoak zirela legez. Oraindik ere mantentzen da guraso-ahalaren instituzio juridikoa, nahiz eta gaur egun amak ere baduen ahal hori.

batzuetan, zenbait gatazkari dagokionez, eta une historikoaren eta gizartearen arabera moldatuko da.

Gizonek indarkeriarekin duten harremanak hainbat maila ditu: egiturazkoan, pribilegioak jasotzen dituzte. Maila sinbolikoan, berriz, hobetsi egiten dira eta ez dira zalantzan jartzen. Eta harreman zuzenean, berriz, beste pertsona batzuei eragiten diete, haien gizentasuna, estatusa edo ondasunak arriskuan ikusten dituztenean.

Azkenik, gizonezkoen gorputza aipatu behar dugu. Genero-sozializazioak ez du zalantzan jartzen gizonaren gorputza. Haren aldaketak eta bizitzako faseak ia beti onartzen dira. Gizonen gorputza ez da beren kontra erabiltzen, emakumeen kasuan bezala; izan ere, gizarteak emakumeak konbentzitzen ditu beti hobetu behar dutela beren gorputza, forma, itxura, nola erlazionatzen diren eta gorputzak espazioak nola hartzen dituen.

Gizonen gorputza izan da neurria eta erreferentea zientziarentzat, arteentzat, eta kultura-adierazpenentzat, diziplina guztietan. Gizonen gorputzak eremu pribatuak eta publikoak okupatzen ditu. Zaintzaren eta plazer sexualaren erdigunean daude. Gizonen gorputzek askoz ere indarkeria gutxiago jasaten dute, ez baitira emakumeen proportzio pandemiko berdinetan jipoitzen, mutilatzen, bortxatzen, bahitzen...

Gizentasun hegemonikoaren ezaugarri gisa identifikatzen dira honakoak ere: gauzen mantenimenduan eta konponketetan dohain handiak izatea, arriskuzko portaerekin gizentasuna erakustea, materialista eta praktikoa izatea, erresistentzia eta ausardia (ez zaie uzten beldurrik izaten), kontrola mantentzea emozioen mende jarri gabe, eta, horregatik, erabakigarriagoak, indibidualistagoak eta intimitatearekiko arduratsuagoak izatea (itxiagoak), berdinen arteko harremanak erabiltzea gizarte-onarpenerako mekanismo gisa.

#### **4.1.2. Genero-aginduen mapa emakumeengan**

Genero-aginduen arabera, emakumeak konpainiarekin bizitzera bideratzen dira, beti babesa eta laguntza bilatzera. Zaurgarri eraikitzen dira, objektu gisa desiratzen dituzten gizonen mundu batean, eta balioa kentzen zaie beren iritziei, erabakiei eta ekiteko gaitasunari.

Genero-estereotipoetatik abiatuta, emakumeentzat ere familiak izan behar du funtsezko balioetako bat. Gizonen kasuan ez bezala, ez da taldearen aurrean estatusa erakusteko kontua, baizik eta haren identitatearen zati bat da bere bizi-ziklo osoan. Familia inguruneak, bai jatorrizko familiak bai berak eraikiko duenak, balio soziala ematen die; familiak emakumearen balioa islatzen du, pertsona eredugarriak eta probetxuzkoak hezteko dituen gaitasunak erakusten ditu. Familian gertatzen dena emakumearen ardurapean geratzen da, eta haiek ematen dituzte kontuak eremu pribatuan eta gizartean. Alaba, arreba edo ahizpa, emazte, errain, amaginarreba eta amona gisa betetzen dituzten rola dira garrantzitsuenak eta beren nortasuna definitzen dutenak. Emakume, profesional

eta abar izatearen aurretik doaz. Besteen zaintzarekin lotzen dituzten rolek lehentasuna dute beraiei bakarrik erreferentzia egiten dietenen aldean.

Emakumeek, familian, afektuak ehundu behar dituzte. Familia-taldea lotuta mantentzen duen ardatz nagusia dira. Bertako kide guztien sostengua eta babesa izan behar dute. Zaintzak eman behar dituzte, baita etxea mantentzeko zerbitzuak ere. Emakumeak “besteentzat” egoteko doktrinatzin dira. Haien gorputzak, lan energiak, espazioak eta denborak familiako beste pertsonen beharren zerbitzura jartzen dituzte.

Familia da emakumeentzako proiekturik garrantzitsuenetariko bat; jatorrizko familiaren zaintza eta aukeratutako familiarena uztartuko ditu, eta, ondoren, seme-alaben familiarena ere bai.

Ez zaio haustura onartzen inolako egoeratan, eta norabide horretan egiten duen edozein mugimendu gogor zigortzen dute, bai familiako pertsonak, bai gizarteak ere, ulertezintasunaren eta erabakiak zalantzan jartzearen bidez. Familiatik kanpo bizimodu ona izateko baliabide material eta ekonomikorik ez izatea oztopo handia da emakumeentzat, familia toxiko batetik edo tratu txarretatik (bikotekidearenak edo beste edozein kiderenak) aldendu nahi badute.

Familia-kohesioari eustea helburu bat da, kostu pertsonalak gorabehera. Familiaren haustura porrot pertsonal gisa biziko du emakumeak, ez baita gai izan gertatu dena konpontzeko, nahiz eta banantzearen arrazoia ez izan berak egindako ezer.

Emakumearen genero-sozializazioan, gizonen kasuan ez bezala, prestakuntza eta enplegua bigarren postuan daude, familiaren ondoren. Zer belaunalditakoa den, horren arabera neurri handiagoan edo txikiagoan izango da haren bizi-proiektuaren erdigunea<sup>9</sup>. Bere kulturaren araberrakoa ere izango da, baina arraroa izango litzateke behin familia bat osatzea erabakitzen duenean lana edo karrera profesionala lehenestea. Gizarte-mailan familia izatea exijituko zaio, baina konpromiso- eta eskakizun-maila gutzitza izango da, gizonari eskatzen zaienaren oso bestelakoa.

Etxe askotan, emakumeen lana familiako ekonomiaren osagarria da; hau da, gizonaren soldata da funtsezkoena, eta hark lehentasuna izango du lana mantentzeko orduan, familiak zaintza behar duenean. Gaur egun ez da begi onez ikusten emakumeak bere soldatapeko lanaren (kanpoko lana) irabazia familiaren ekonomiara ez ekartzea ere, eta lanaldi bikoitzak eta hirukoitzak egin behar izaten dituzte.

Emakumearengandik espero da “todoterrenoa” izatea aipatu dugun lanari dagokionez, bai etxe barruan bai kanpoan, indartsua izatea euskarri emozional gisa, indartsua pertsonentzat eta haien arteko harremanentzat funtsezkoak diren dinamikak kudeatzeko orduan, eta ez da kontuan hartzen horrek dakarren zama mentala. Ezin du gaixotu eta

---

9 Gaur egun, emakumeek esperientzia kultural oso desberdinak ditugu, belaunaldiaren arabera. Azken 100 urteetan, gizarte-esparru guztietako aldaketak genero-aginduetan eragiten joan dira, eta, patriarkatuaren interesetara egokitu dira, bai eta kapitalismoaren eta beste zapalkuntza batzuen interesetara ere.

ez da onartzen gainerako pertsonak adina zainketa behar duenik: gizonak, adingabeak, mendekotasuna dutenak edo adinekoak. Familian, emakumeak zerbitzu “mugagabeak” ematen ditu.

Genero-estereotipoen arabera, emakumeak pertsona atsegin eta adeitsuak dira, abegikorrek eta entzuteko, laguntzeko, etxeko lanetarako eta kanpoko lanerako prest daudenak. Familia, afektuak, erantzukizunak, baita lanean ere, egintzat ematen dira. “Besteak” asebetetzean plazerra sentitzeko hezten dira.

Sexualitatean, berezko desirarik gabeko izaki gisa irudikatzen dira, irizpiderik gabe, gizonak haien desioa jakin eta zuzentzeko zain. Maitasun-harremana sexu-praktikarako baldintza dela ikasten dute. Sexua gehiago lotzen dute eman dezaketen plazerrarekin, beren desira eta plazerrarekin baino. Gizonezkoen kontrara, ez da positibotzat jotzen sexu-bikote asko izatea. Zenbat eta sexu-bikote gehiago izan, orduan eta gehiago galtzen dute balioa eta errespeturako eskubidea, baita bortxatzen dituztenean ere.

Emakumeen sexualitatea beren gorputzen “hipersexualizazioarekin” nahasten da, eta hori gailentzen da, bere izatearen beste edozein dimentsioren gainetik. Desiratuak izan behar dira, gizarte-onarpena jasotzeko mekanismo gisa. Horretarako, ahalegin eta diru asko inbertitzen dute urteetan zehar, autoestimua eta norberarekiko segurtasunaren kaltetan, bai eta batzuetan osasunaren kaltetan ere.

Emakumeak bere buruarekiko duen segurtasuna proiektatzen duen irudian oinarritzen da, eta irudi horrek edertasun-kanonetan, desiragarritasunean eta espazioetan zehar erlazionatzeko eta mugitzeko duen moduan du oinarria: diskretua izan behar du, harrokeriarik gabea, anbizio handirik gabea, atsegina, jarrera onekoa eta beti desiragarria. “Egoten jakin” behar du, eta pasiboa izan.

Emakumearen bizi-ibilbidea markatzen duen beste agindu bat amatasuna da, eta horrekin batera, amatasun-aurreko aldia (familia tradizional baten prestakuntza), haurdunaldia (garai horretan, egunero idealizatzen da haurrarekin eta hazkuntzarekin zerikusia duen guztia) eta ondorena (erditzean ez du erabakitze aukerarik, eta hezkuntza fasean emakume gisa desagertzen da, erantzuteko, damutze edo kexatzeko aukerarik gabe).

Emakumeentzako, amatasun-agindua hainbat kezka, erru eta auzipetzeren iturri da bizitzako une askotan. Emakume-ama rola da emakumeak bete behar dituen gainerako dimentsio eta rolei itzal gehien egiten diena. Ama izatea erabakitzen duen emakumeari ez zaio zeregin horretan ahul agertzen uzten, eta ama ez izatea erabakitzen duena, berriz, osatugabetzat joko da bere azken egunera arte; hau da, ukazio gisa edo bere feminitatea eta desiragarritasuna ezkutatzen dituen ezaugarri pertsonal baten ondorio gisa ikusten da.

Emakumea bere gorputzaz, denborez eta espazioez desjabetzen da, genero-aginduak hurbileko harremanetan besteak zaintzeko bizitzea agintzen baitio. Gorputza, denborak eta espazioak ematen dituzte, elkarrekikotasun gabe (trukean ezer espero gabe) eta doan

(beren lanak ez dira bizitzarako funtsezko jardueratzat hartzen, ikusezin bihurtzen dira, eta lan-merkatura igarotzen direnak gizarte-balio eta ordainsari gutxien dutenak dira).

Genero-aginduen bidez, emakumeei ezaugarri hauek esleitzen zaizkie: diskrezioa, baldintzarik gabe aritzea, ulermena, eskuzabaltasuna, gozotasuna, bakegile-bitartekari solidarioa izatea, adeitsua, maitagarria, konformista, esanekoa, otzana, langilea, emozionala (“emozionalegia”), ahula, zaugarria, ez oso arrazionala, sentibera, intentsoa, familiarazalea, mendekoa, antolatua eta denentzat eta denerako denbora duena, etxearekin lotutako gauza guztietan berezko trebetasuna duena, lagunkoia, eskuragarria, pazientziaduna, zentzuduna (arriskurik hartzen ez duena), zintzoa eta enpatikoa.

Ezaugarri horiek guztiak gutxietsi egiten dira, eta pertsona horiek osagabeak direla ulertzen da, hobetzeko modukoak eta gizatasun gutxiagokoak direla.

Emakumea zaintzan proaktiboa izatea espero da, ia beste pertsonen beharrak igarri behar ditu, pertsonen arteko gatazketarako irtenbideak bilatu behar ditu eta krisialdietan laguntza eskatu, batez ere familiakoetan. Bestalde, ez dira proaktibotzat hartzen sexualitatean, lan-proiektu batean edo bikotekidea bilatzeko orduan. Ez eta maila zabaleko dinamika komunitarioetan ere, hala nola politikan, ekonomian edo arlo publikoaren kudeaketarekin zerikusia duen guztian.

Emakumeen gorputza da haien lehen gudu-zelaia. Txikitatik auzitan jarri da haien gorputza, eta etengabe ari dira lanean, inoiz lortu ezingo dituzten edertasun-kanonetara iristeko. Irudia, edertasuna eta sentsualitatea lehen mailako gizarte-balioak dira emakumearentzat, genero-aginduen arabera. Aldi berean, emakumeen gorputzean beldurra sartzen da, eta esaten zaie edonoren eskura dauden objektu desiragarriak direla. Ez zaie onartzen autodefentsa, ez indarra ez indarkeria erabiltzea, orokorrean. Ez zaie onartzen haserrea, amorrua, aldarrikapena eta erantzuna ematea hainbeste indarkeriaren aurrean. Defentsa-gabezia berezko ezaugarritzat hartzen da sexu-indarkeriaren aurrean, gizonen nagusitasunaren aurrean, kanpoko ingurunean gertatzen den edozein gertakizunen aurrean.

Emakumeen aurkako indarkeriek hainbeste adierazpen dituzte maila estrukturalean, sinbolikoan eta zuzenekoan, non ezinezkoa bailitzateke denak aipatzea. Emakumeek indarkeria jasan dezakete beren bizi-ziklo osoan, sozializatzen diren testuinguru guztietan (ingurune afektiboan nahiz komunitarioan) eta pertsona desberdinen eskutik, bai hurbilekoek bai ezezagunek eraginda. Gizarteak mezu kontraesankorrak igortzen ditu; alde batetik, indarkeria horiek desager daitezzen eskatzen hasten da, eta, bestetik, indarkeria horien adierazpen zehatzak edo indarkeria darabilten gizonak normalizatu egiten ditu, garrantzia kentzen die edo justifikatu egiten ditu.



Indarkerien aurkako borroka estu lotuta dago haien kausa estruktural eta sinbolikoen desagertzearekin, non aldaketak ez baitira hutsalak. Aldaketa horiek pribilegioak kendu behar dizkiete gizonei, eta gizarte-desberdintasunekin amaitu behar dute.

## 4.2. Akonpainamendua egiten diegun pertsonen bazterketa larriko prozesuetan eragiten duten genero-aginduak.

Sozializazio-prozesu bereziak eta genero-aginduak aztertu ondoren, gure akonpainamendua jasotzen duten gizonengan eta emakumeengan nola eragiten duten aztertuko dugu, eta batzuei edo besteei esleitutako zer ezaugarri diren zaurgarritasuna eragiten dietenak edo beren prozesuen bultzatzaileak.

### 4.2.1. Genero-aginduak bazterketa larriko egoeran dauden gizonengan

Bazterketa larrian dauden gizonei laguntzean, kontuan izan behar dugu ez dituztela bete haien familia- eta gizarte-ingurunean haiengandik espero diren helburu nagusiak. Beraz, haien errealitate konplexuak, seguruenik bereizkeria ugarik zeharkatzen dituztenak, ezin dira oinarritu gizartearen arabera gizonen bizi-proiektuan arrakasta pertsonala eta soziala islatzen duten lorpen horietan. Are gehiago, ez dago bizi-proiektu sendorik; izan ere, gehienetan, gizon horiek “biziraupen moduan” daude, eta genero-estereotipoetan sartzen ez den gizontasun bat dute.

Hori dela eta, bazterkeria larrian dauden gizonen, beren gizon identitatea finkatzeko, estereotipatutako ezaugarri batzuk indartuko dituzte, areagotuz (adibidez, indarkeriaren erabilera), gatazka pertsonalei gizontasun toxikotik erantzungo diete (aurrerantz ihes egingo dute, gertaerak prozesatu gabe eta arrazoiak kanpoan bilatuz), edo iraganeko bizitzaren narratiba idealizatu bat egingo dute, beren errealitatera egokitzen ez dena edo etorkizuneko begirada desitxuratu dezakeena.

Ikus ditzagun hiru balio nagusiak (**familia**, **lana** eta **sexua**) eta horietan porrot egiteak bazterketa larrian dauden gizonengan duen eragina.

**Familia** balio garrantzitsua da gizonen estatusen. Bazterketa larrian dauden gizonen ez dute betetzen familia bat eraikitzearen gizarte-espektatiba. Ez dira familiaburuak, ez dute familia “mantentzen” eta ez dute betetzen “Aita Onaren” rol soziala. Aurreko puntuan aztertu den bezala, familia bada gizona gizartera proiektatzeko leku bat, akonpainatzen ditugun pertsonak ez dira gizartean proiektatzeko moduan sentitzen; haien balioa murriztu egiten da eta beren buruarenganako konfiantza ere bai.

Bestalde, baliteke gutxiago eragitea maila afektiboan familia-lotura estuak eta osasungarriak ez izateak; izan ere, lehen puntuan ikusten zenez, gizonari gutxiago kostatzen zaio familia-harremanak haustea eta haren euskarri eta laguntzatik ateratzea.

Halaber, genero-joera bat izan daiteke uste honetatik abiatzea: gizonak gutxiago sufritzen duenez, familiarekiko haustura ez da hain garrantzitsua, eta, beraz, alderdi hori gutxiago lantzen da, edo batere ez. Aldi berean, egoera emozional negatiboetatik ihes egitean, baliteke gizonezkoek ondoezari behar bezala aurre ez egitea eta egoki ez adieraztea. Kasu horietan, ez dira landuko ez emozioak, hala nola frustrazioa, segurtasunik eza, baztertua izateko beldurra, errua, lotsa, ez esperientzia traumatikoak lantzeko eta haien ondorioak konpontzeko beharra ere.

Azkenik, profesionalek gizonezkoekin egindako esku-hartzeetan ezaugarri garrantzitsutzat jotzen dute familia- eta gizarte-sarerik ez izatea, eta ezaugarri komuna da kasu gehienetan. Akonpainatzen dugun pertsona horrentzat, ingurune afektiboa babes- eta laguntza-faktorea izan daiteke bazterketa larriko egoeratik ateratzeko prozesu bati ekiten dionean. Alabaina, gizonen kasuan, ingurune hori ezegonkorra da edo ez da existitzen kasu askotan; beraz, gizarte eta hezkuntza arloko akonpainamenduak eta laguntza psikosozialak kontuan hartu behar du zailtasun hori.

Lehen esan dugun bezala, gizonezkoentzat **lana** hilaren amaierako nomina bat baino gehiago da. Etxetik kanpoko soldatapeko lana da gizonaren irudiari balioa ematen dion bizi-proiektu arrakastatsu baten eraikuntzarako faktore garrantzitsuenetako bat. Betidanik “probetxuzko gizona” deitu izan zaiona lana eta soldata dituen da. Bi gauza horiek bermatuko dute familia eta erosteko ahalmena izatea, gizartean izen ona ematen dion guztiaz inguratuzko.

Berrito ere, genero-erolek ezarritako eta bete gabeko espektatiba bat. Gizon batek lanik ez izateak balioa kentzen dio bere nortasunari eta irudikatzen duenari. Bere identitate maskulinoa eta, beraz, bere autoestimua hondatu egiten dira.

Gizonekin egiten diren esku-hartzeetan, kontuan hartu beharko litzateke zer esan nahi duen enpleguak beretzat eta gizartearentzat, gizontasun hegemonikoaren eraikuntzan. Espektatibak doitu egin behar dira. Garrantzitsua da gizonaren bizi-esperientziaren irakurketa bat egitea, genero-agindu hori zalantzan jartzen saiatuz. Lana bilatzean eta mantentzean egindako porrotak duen pisua ez litzateke handiagoa izan behar autonomia ekonomikora eta garapen pertsonalera bideratuko duen lan bat lortzeko motibazioa baino (emakumeei egindako akonpainamenduei ere aplikatzen zaie).

Aipamen berezia merezi dute esku-hartzearen unean dituzten ezaugarriengatik lanik izango ez duten pertsonak. Garrantzitsua da gizarte esku-hartzearen ikuspegia aldatzea, “enplegarritasuna eta enplegu-bilaketa” ez dadin erdigunea izan, baizik eta dimentsio askoren arteko bat, kasuaren arabera landu daitekeena, edo ez. Esku-hartzearen erdigunea pertsonak izan behar du, eta harekin batera, haren desioak eta benetako aukerak.

Ikuspegi-aldaketa horretarako, enplegua desmitifikatu behar dugu prozesu pertsonalaren zati nagusi gisa, izan ere:

- Pertsonak beren lan-indarraren eta egungo sistemari egindako ekarpenaren arabera balioestea bultzatzen da horrela.
- Berriro ere balioa eta zentralitatea kentzen diegu bizitzaren sostenguarekin zerikusia duten ordaindu gabeko beste lan batzuei.
- Pertsona asko de facto baztertzen ditugu, lan egingo ez dutenak eta ez dutenak zertan lanik egin. Gizarteak, profesionalek barne, ikuspuntu paternalista batetik begiratzen diete (lanik egin ezin baduzu, zerbait falta zaizulako da, eta mantendu egin behar zaituzte) eta zorpetzearen ikuspegitik (gainera laguntzen kontura bizi zara...).
- Esku-hartze mota horrek ez du ahalduntzea bultzatzen, eta ez du horretarako borondaterik ere; izan ere, lanik egiten ez dutenek ez daukate pribilegiotzat jotzen dugun guztia, eta ez dituzte eskubide berberak. Ez dezagun ahaztu “erosteko ahalmenak” eta “zure diruaz erabakitzeke ahalmenak” gizarte-balioa ematen dizula, jabetze-prozesuen parte izateaz gain (independentzia ekonomikoa).

Gizartean bezala, gizarte esku-hartzearen arloan ere, lan-munduan sartzea da akonpainatzen diren pertsonen prozesuen ardatz nagusietako bat, batez ere gizonen dagokienez. Gure buruari galdetu behar diogu ea gizarteak zer mezu helarazten dien erakundeak akonpainatzen dituen pertsonen kolektibo horren zati handi batentzat enplegua ez denean aukera bat, eta ez duenean zertan izan behar ere. Genero-agindutik abiatuta, gizarte-espektatiba bat dago, Bizitegik akonpainatzen dituen gizonen errealitateari erantzuten ez diona eta ez duena laguntzen haien autoestimua eta gauzak lortzeko itzaropena hobetzen.

Maskulinitasun hegemonikoaren eraikuntzan funtsezkoa den beste dimentsio bat **sexualitatea** da. Sexualitate horretan, sexu-jarduera kontrol-mekanismo eta botere-ariketa gisa ulertzen da, eta gizonaren plazerra da elementu nagusia. Genero-aginduen arabera, gizonen aktiboak izan behar dute, ahal duten guztietan eta ahalik eta emakume gehienekin sexua izateko prest egon behar dute.

Bazterketa larrian dauden gizonen ez dute sexualitatea ezarritako espektatiben arabera biziko, hainbat arrazoiengatik; gainera, arrazoi horiek onartzeko zailak dira, eta, beraz, zintzotasunez lantzeko zailak (menpekotasunak, buru-osasuna, gogo-aldarteak, harreman afektiboetarako zailtasunak, bizi-baldintzak...).

Esku-hartzeetan, sexualitatea ez da banakako planetan kontuan hartzen, baina profesionalek gaiari buruz hausnartzen duten aldiro, lehenasunez landu beharreko alderditzat hartzen da. Galdera da: zergatik ez da egiten? Tabua izaten jarraitzen du, eta, horregatik, gizabanakoari, kasu honetan gizonen, izugarri eragiten dien esku-hartzearen zati bat alboratzen da. Ondorioz, ez dira hauek lantzen:

- Sexu-jarduerarik ezak gizonengan sor dezakeen frustrazioa.
- Prostituzioa bizitza sexual osasuntsu baten ordezkotza gisa ikustea.
- Lotura afektibo-sexualik eza edo lotura toxikoak.
- Norberaren intimitaterako espaziorik ez izatea.
- Akonpainatzen ditugun pertsonen artean sor daitezkeen harreman afektibo-sexualak ez lantzea.
- Sexu-aniztasuna kontuan ez hartzea.

Horrekin guztiarekin, jabetu behar gara sexualitatea ulertzeko modu negatibo bat betikotzen jarraitzen dugula, pertsonaren garapen integrala ahalbidetzen ez duena. Sexualitatea ez lantzea pertsonen oinarritzko eskubideen urraketa da, eta geure gain hartu behar dugu, lanean hasita.

Ezin dugu hitz egin pertsonak erdigunean jartzeaz eta akonpainamendu integralak egiteaz, gizakiaren dimentsio guztiak kontuan hartu gabe; eta bereziki azpimarratzen dugu sexualitatea.

Beste alde batetik, genero-sozializazioan eta maskulinitasun normatiboarekin lotzen diren ezaugarrietan sakonduz, beharrezkotzat jotzen da gizonekin egin beharreko esku-hartzeak planifikatzeko orduan zailtasunak ekar ditzaketen bi portaera aztertzea:

- Arrisku-portaerak gizonezkoen izaeraren berezko ezaugarri gisa hartzea.
- Indarkeria erabiltzea gizontasuna berresteko eta gatazkei aurre egiteko mekanismo gisa.

Arriskuaren esanahia ez da berdina genero bakoitzarentzat, ez eta gizonezkoetan eta emakumezkoetan ematen zaion balioa ere. Gizonezkoen kasuan, arriskuak hartzea, eta arriskuan jartzen dituzten jokabideak, beren maskulinitasunarekin lotuta daude, arriskua ia exijentzia bat baita. Hala ere, emakumeengan arduratsua izatea bultzatzen da, arriskuan ez jartzea. Lehenik, ez direlako behar bezain sendoak. Bigarrenik, beren afektuak eta sostengatzen dutena arriskuan jartzen dituztelako. Emakumeak ez dira askeak arriskuak hartzeko orduan, beren ingurunean pentsatzeko eta gerta dakizkiekeen galerak kontuan hartzeko eskatzen baitaie. Arriskuzko portaerak hartzea berekoitzat hartzen da, edo zentzugabekeriatzat (berriz ere zalantzan jartzen dira haien arrazoitzeko gaitasuna eta heldutasuna).

Beraz, arrisku-portaerak konstante bat izango dira bazterketa larrian dauden gizonengan, benetan jabetu gabe zer ondorio izango dituen horrek haien osasunean, harreman pertsonal eta sozialetan, eta zerbitzuekiko dituzten harremanetan eta horietan egingo duten denboran.

Esku-hartzean garrantzitsua da profesionalen eredia, batez ere gizonezkoena. Oinarrizkoa da gizon izateko beste modu batzuk badirela erakustea, eta horiek ere ongizatearen eta arrakastaren sinonimoak direla.

Indarkeria ere gai erabakigarria da. Aurreko atalean esan dugun bezala, gizon izateak autoritatea edukitzea esan nahi du, eta guk akonpainatzen ditugun gizonei gizarteak autoritatea kendu die, gizarte-espektatibak ez dituztelako bete.

Horregatik, indarkeria erabiltzen dute bizirauteko tresna gisa, hainbat abiapuntutatik:

- Gizarteak zalantzan jartzen duen identitate maskulinoa berretsi nahia.
- Mendeko posizioan daude, gizonezko orori dagokiona pribilegiaduna izan behar den arren.
- Gaitasun emozionalik eza (emozio negatiboen kudeaketa) eta trebetasun sozialik eza (asertibitatea), lehenik gizonak diren aldetik, eta bigarrenik, bazterketa larriko egoeran dauden gizonezko gisa.
- Bazterketa-testuinguru hori bortitza da, eta indarkeria ohikoa da, eta, beraz, beharrezkoa.

Horregatik guztiagatik, kolektibo horiekin esku-hartzeak egitean kontuan izan behar dugu indarkeria topatuko ditugun jokabideen artean ohiko ezaugarria dela, eta mahai gainean jarri behar dela nola heldu horri epe labur, ertain eta luzean, ikuspegi ez-punitibistatik eta arazoaren oinarritik.

- Epe laburrean, esku-hartzeetan gelditu beharreko indarkeria-egoerak gertatzen direlako, eta, gainera, beste arazoekin gurutzatzen direlako (esaterako, osasun mentala, kontsumoak...), eta hari aurre egitea zailtzen dutelako.
- Epe ertainean, genero-ikuspegia txertatuko duen eta genero-sozializazioari erreparatuko dion ikuspegi pedagogikotik.
- Epe luzean, helburutzat hartuta pertsonaren tresnen errepertorioa eraldatzea, bere buruarekin, beste batzuekin eta testuinguruarekin erlazionatzeko moduari dagokionez.

Jarraian, akonpainatzen ditugun gizonezkoengan identifikatu diren ezaugarri garrantzitsu batzuk jaso ditugu, genero-sozializazioaren ondorio direnak eta esku-hartzearen oinarri izan daitezkeenak. Talde bereziak egin ditugu: lehenengoan gizontasunaren ezaugarri positiboak agertzen dira. "Ezaugarri erresilienteak" deitu diegu. Bigarren taldean maskulinitasun toxikoari lotutakoak daude, eta uste dugu gizarte- eta hezkuntza-prozesuan aurrera egiteko oztopo izan daitezkeela.

Genero-sozializazioak eragindako <b>ezaugarri erresilienteak:</b>	Genero-sozializazioak eragindako <b>ezaugarri oztopatzaileak:</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Autoestimatu orekatuagoa (ezaugarri naturalizatuak, gorputzaren onarpen handiagoa, familiaren zaintzarekiko konpromisoa gizarteak ez jartzea hainbeste auzipean...)</li> <li>• Taldekako eta komunitateko jardueretan parte hartzea.</li> <li>• Taldeari komunikatzeko gaitasuna, eta jendaurrean hitz egitean "beldur eszenikoa" ez sentitzekoa.</li> <li>• Bizikidetzako arazo gutxiago, besteen portaerari edo ohiturei, edo gauzen edo espazio komunen erabilerari garrantzirik ez emateagatik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldeak onartzeko beharra, maskulinitasun toxikotik.</li> <li>• Heziketa emozional eta introspekziarako gaitasun eskasa.</li> <li>• Autosufizientea izatearen ustea eta zaugarri ez agertzeko beharra, laguntza eskatzea galarazten diona.</li> <li>• Lotura afektibo-sexualak modu asimetrikoan eraikitzea gizonaren eta emakumearen artean (harreman heterosexualen kasuan).</li> <li>• Generoarekin zerikusia duten ondoezei izena jartzeko kontzientzia eta baliabide pertsonal falta.</li> </ul>

#### 4.2.2. Genero-aginduak bazterketa larriko egoeran dauden emakumeengan

Bazterketa larrian dauden emakumeei laguntzen diegunean, abiapuntuan dagoen errealitatea honakoa da: baliabide hauetara iristen direnean kaltetuago daude, eta desegituratze pertsonal handiagoarekin. Akonpainamendua emakume bakoitzaren egoerara egokitu behar da, bere ezaugarri indibidualak eta bere aukera eta indarra kontuan hartuta. Ez dute balio emakume guztiei aplikatzeko modukoak diren formula neutroek. Emakume bakoitzaren errealitatea konplexua da, eta interseksionalitatearen ikuspegia funtsezkoa da egoera ulertzeko (hobe ulertzeaz hitz egitea, balorazioaz eta diagnostikoaz baino), akonpainamendu egokia planifikatzeko eta emakumeak bere prozesuaren gidari izateko behar dituen laguntza zehatzak emateko.

Agian hau da egin beharreko galdera: Zer laguntza behar du emakume honek bere prozesua autonomia gehiago eta bizitza hobea izatera bidera dezan? Beste honen ordez: Zer behar du emakume honek bere gizarteratze-prozesuko helburuak lortzeko?

Akonpainatzen ditugun emakumeek desabantaila handiagoa dute jaiotzetik, emakume gisa kategorizatzen direlako. Bazterketa larrian dauden emakumeek, eta zerbitzuetara iristen diren guztiek, gizonen baino ibilbide luzeagoa egin dute egoera horretara iritsi aurretik. Izan ere, emakumeek, kalean egon aurretik, adibidez, gizonen baino askoz estrategia gehiago erabili dituzte beste edozein aukera bilatzeko. Hori dela eta, abusuak, esplotazioak edo tratatu txarrak izan ditzaketen harremanetan sartuko dira, teiltatupean egoteko. Emakumeen bazterketa-prozesua bortitzagoa izan daiteke eta ondorio dramatikoagoak izan ditzake osasun psikologiko, fisiko eta sozialean.

Genero-sozializazioak emakume guztiei eragiten die sinestea zaugarriak direla berez (sexismoak emakumeei esleitutako ezaugarriak) eta gizarte-baldintzengatik (eremu publikoa arriskutsu gisa bizi dute, eta edozein unetan eraso egin diezaieke norbaitek). Haurtzarotik, babesgabetasun-sentimendua garatzen da emakumeengan, eta, bazterketa larriko egoerara iristen direnean, areagotu egiten da haien bizi-esperientziagatik. Bazterketa larrian dauden emakumeek gizonen baino Bizitzako Gertakari Estresagarri gehiago bizi izan dituzte. Esperientzia horiek zerikusia dute hainbat adinetan, testuingurutan eta pertsona desberdinen eskutik indarkeria matxistak jasan izanarekin, eta horiei gehitu behar zaizkie indarkeria estrukturalak eta sinbolikoak (genero-aginduak ez betetzeagatik jasotako estigma eta zigorra).<sup>10</sup>

Horregatik, bazterketa larrian dauden emakumeekin gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzeak egitean, kontuan hartu behar ditugu generoarekin lotutako babesgabetasuna eta horri lotutako zaugarritasuna.

Gizarte-bazterketako egoeran dauden emakumeak krudelkeria handiagoz zigortzen dira gizarte-espektatibak betetzen ez badituzte; estigmak eta isolamenduak arrisku larrian jartzen dituzte, zeren, gainera, gizarte-bazterketako egoeran dauden gizonekin harremanak izango dituzte eta indarkeria matxistak jasango dituzte.

Emakumeek betetzen ez dituzten agindu sozialetatik, garrantzi handiena zaintza-lanekin zerikusia dutenek hartzen dute, hau da, beste pertsonen doan eta borondate onez ematen dizkieten zerbitzuekin. Familia eta, zehazki, amatasuna, pisu handiko aginduak dira bazterketa-egoeran dauden emakumeen bizi-esperientzian.

Emakumeek harremanekin lotutako identitate bat eraikitzen dugu, eta loturek eta afektuek beste dimentsio batzuek baino garrantzi handiagoa hartzen dute gure garapen pertsonalean. Beste guztiaren aurretik jartzen ditugu, eta, hala ez bada, erruduntasuna agertuko zaigu, aurrera egiten uzten ez digun oztopo handi baten moduan.

Subkontzientea aginduz, sexismoz eta patriarkatuz josita dago. Geure buruarekin erlazionatzeko moduan, gure buruarekin ditugun elkarrizketetan, gizarte-aginduetatik abiatzen gara. Gure garapenaren beste arlo batzuek indarra hartzen dutenean, "interes-gatazka" sortzen da, nolabait esateko, irakatsi digutenaren eta gure buruari baimentzen diogunaren artean. Borroka hori ikaragarria da, eta genero-agindu bat hausten dugun bakoitzean gertatzen da, ezinegon handia sortuz. Ez erruagatik bakarrik, baizik eta ikusgai jartzearen lotsagatik ere bai, eta kritikatuak izateko eta porrot egiteko beldurragatik.

---

10 "Eskura ditugun datuen arabera, etxerik gabeko emakumeek bizitzako gertakari estresagarriak jasateko arrisku handiagoa dute (EIN, 2012), baina gaur egun ditugun datuak urriak dira.

Emaitzen arabera, etxerik gabeko emakumeek egoera berdinean dauden gizonen baino BGE gehiago bizi izan dituzte (Padgett, Smith, Henwood eta Tiderington, 2012). Bestalde, etxerik gabeko emakumeen artean gailentzen diren bizitzako gertakari estresagarriak harremanekin lotutako kausak dituzte, hala nola abusu-esperientziak, etxeko indarkeria-arazoak eta ospitaleratze psikiatrikoak (Hatch eta Dohrenwend, 2007).

Illo beretik, Coates eta McKenzie-Mohr-ek (2010) ikusi zuten, etxerik gabeko emakumeek bizi dituzten BGEen artean abusu fisiko eta psikologikoekin lotutako esperientzien oso ehuneko altuak daude, bai haurtzaroan, bai nerabezaroan, bai bizitza osoan zehar bizitakoak. Gainera, beste ikerketa batzuek erakutsi zuten etxerik gabeko emakumeek haurtzaroko tratatu txarren eta gurasoen substantzia-abusuen erreakzio gisa sortutako substantzia-abusuak eta buru-nahasteak bizi izan zituztela (Stein eta kolaboratzaileak, 2002)." Rodríguez, M., Roca, S.I., Panadero, P. (2016)



Bazterketa-egoeran dauden emakumeen kasuan, zaintzen eta amatasunaren aginduarekiko haustura ez da egiten kontzientziatik eta ahalduntze-prozesu batetik, baizik eta landu ezin dituzten gertaera traumatikoetatik, eta, horregatik ezin dute zaintza-edo amatasun-rol hori bete. Gertaera traumatiko horiekin batera etorri ohi dira arrisku-portaerak, harreman toxikoak edo estigma eragiten duten egoerak (buru-osasuna, gaixotasun estigmatizatuak, etab.).

*“Emakumeen etxegabetasuna familia-ingurunearekin lotu izan da. Horrela, emakumeek gizarte-bazterketa bikoitza jasaten dute: emakumea bera erortzeaz gain, ezin izan du familia osorik mantenduko duen etxea sortu. Honela azaltzen du Sánchezek (2007:108): “Ordura arte emakumeak bazterketa ikusezina jasan badu (etxe barrukoa), bazterketa hori ikusgarri egiten hasten da emakumeak ezin duenean familiako gainerako kideen zaintzaile-rol sakratua bete. Une horretan emakumearen zaurgarritasunak gizarte-bazterkeriara eramaten du. Eta, batzuetan, andreak agindutako rol soziala ez betetzearen arrazoia ez da beren neuronak aztoratu egin direla, edo mendekotasunek harrapatu dituztela. Baliteke emakume horrek familia-eremuan “ez” esaten ikasi izana, eta gainerakoek ezezko horiek ez barkatzea, eta “ez” horren ondoren gaitzespenak eta erruak biderkatzea. Eta itomena hainbestekoa izatea, azkenean etxetik alde egitea erabakitzen duela.*

*Horrek erru-sentsazio handia sortzen du; izan ere, “emakume on” batek ezin die horrela huts egin gehien maite dutenei. (Sánchez, 2007: 64)” Carrasco Florido, L. 2014: 22.*

Emakumeen autoestimua ez dago orekatuta (genero-sozializazioaren eta jasaten dituzten indarkeria sinbolikoen ondorioz), eta erabat kaltetua geratuko da emakume oso izateko “emakume ororen bizi-helburuetako” batean porrot egiten badute: ama izatea eta “modu erlijiosoan” jardutea.

Ama izan ez bada, absentzia horren pisua bizitzako fase bakoitzean egongo da presente, eta are gehiago menopausiara hurbildu ahala, orduan ez baitago atzera bueltarik. Ama izan direnen kasuan eta seme-alaben zaintza galdu badute edo horiek adin nagusitasunera iristean harremana eten badute, erruak, lotsak eta arbuiatzeko beldurrak itzal oso luzea dute, eta itzal horrekin lagundu egin behar zaio, eta konpondu egin behar da.

Emakumeak akonpainatzean, garrantzitsua da ulertzea zer harreman duten genero-arau horiekin (jatorrizko familiarekin eta amatasunarekin lotutakoak, seme-alabak izan edo ez; eta, izanez gero, bere garaian hautatu zuen baina esku-hartzearen unean hautsita dagoen familiarekin).

Ama ez diren emakumeen kasuan, eta horretarako grina baldin badute, horrekin lagundu behar diegu, eta esku-hartzea bideratu, barne-gatazka hori ahalik eta hobekien konpontzeko eta ondoeza arintzeko.

Familia-sarerik ez izatea etxebizitzarik ez izatearekin ere lotuta dago. Emakumeen zaurgarritasunaren ikuspegitik jardutean (kalean indarkeria gehiago jasaten dutelako), gerta daiteke emakumeekin gehiago lantzea aterpea bilatzearen gaia, gizonekin baino. Hori ez da negatiboa. Baina negatiboa da gizonak kalean egon daitezkeela pentsatzea, emakumeek baino indarkeria gutxiago jasaten dutelako. Hori ere ez da txikikeria! Gauza batek ez du bestea kentzen. Dramatikoa da, oinarritzko eskubideen urraketa hain gogorraren aurrean, aukeratu egin behar dela batzuetan.

Azkenik, harremani, horiekin lotutako identitateari eta horrek emakumeengan duen garrantziari dagokienez, bikotea aipatu behar dugu, eta horrek emakumeen egoeran duen garrantzia. Gizarte honek bikote harreman heterosexualean bizitzeko hezten gaitu, esan dugun bezala, rol desberdinekin: gizonek hornitzaile- eta babesle-rola bete behar dute; emakumeek, berriz, babesle eskatu edo hura jasotzea itxaron behar dute, bikotearen arabera.

Bazterketa larrian dauden emakumeen kasuan, mendekotasuna errealitate konplexua da akonpainatzeko. Beren bizitzaz, beren bizi-proiektuez eta feminitate normatiboaz desjabetuta, hainbat arrazoiengatik oraindik eskuragarria den alderdi hori baliatzea geratzen zaie: bikotea bilatzea. Baina bikotea osatze hori beti egiten da beharretik, gabeziatik, aipatutako hutsunetik, eta horrek desabantaila-egoeran jartzen du gizonezko bikotekidearekin alderatuta. Bikotekidea ere bazterketa-egoeran egon arren, emakumea beti egongo da koska bat edo bi beherago. Oso litekeena da bikotean abusuak, tratatu txarrak edo esplotazioa egotea.

Bikote izateko nahiak, maitatuak eta babestuak sentitzeko eta behar dutela sentitzeko nahiak, emakumeek abiarazitako prozesu indibidualak leherrarazi ditzake, eta haietatik urruntzea eragin, bikote-harremanean zentratzeko. Horregatik, bazterketa larrian dauden emakumei laguntzen zaienean, beharrezkoa da kontuan hartzea genero-sozializazioa bikoteak osatzeko moduan (maitasun erromantikoa, bikotea helburu gisa...) eta sexualitatean. Bazterketa larrian dauden emakumeekin egindako esku-hartzeetan, sexualitatea alde batera uzten da. Ikuspegi profesionaletik arrisku-faktore gisa ere ikusten da batzuetan.

Emakumeek sexualitatea bizirauteko mekanismo gisa erabil dezakete. Gizarte-bazterketako egoeran dauden emakumeek, genero-sozializazioak beren bizitzako hainbat alderdi zeharkatzen dituzenez (generoa, rolak, portaerak, desioa, sentsualitatea eta abar) ez dute sexualitateari buruz hitz egiten, eta gai horren inguruan dagoen tabuaren ondorioz, profesionalek ere ez dute esku-hartzeetan lantzen. Hurbilketa modu bakarra haurdunaldien eta sexu-transmisiozko gaixotasunen prebentzioa da; ez zaio sexu-indarkeriaren prebentzioari heltzen, eta are gutxiago plazerrari, norberaren desirari, autoerotismoari eta sexu-aniztasunari.

Gizonei akonpainamendua egiteko orduan sexualitateak duen garrantzia azpimarratu dugu; bada, emakumeen kasuan, are gehiago, sexu-indarkeria sinboliko eta zuzenak jasotzen baitituzte. Ezinbestekoa da gizarte- eta hezkuntza arloko esku-hartzeetan eta

esku-hartze psikosozialetan sexualitatearen trataera eraldatzea, ardatz nagusietako bat den heinean, bizitza ona helburu duten prozesuak sustatu nahi baditugu, batez ere emakumeen kasuan.

Bestalde, sexua trukerako baliabide bat izan daiteke prekariedade eta mendekotasun gehiagoren aurrean, babesgabetasun handiagoaren edo hainbat gizonen indarkeriaren aurrean, eta "eramangarriagoa" izan daiteke bikote bakar baten indarkeria.

Enpleguari dagokionez, zenbait alderdi identifikatu behar dira. Profesionalek joera sexistak identifikatzen dituzte. Lehenengoa, profesionalen ikuspuntuari lotutakoa da; izan ere, emakumeak gizarteratzeko prozesuetan garrantzi gutxiago ematen zaio: esan bezala, harremanen eremua lehenesten da, afektuena; beraz, lana bilatzeko eta mantentzeko laguntza ez da hain handia, eta itxaropenak murrizten ditu. Bigarrenik, lan egiten badute, edo aukera baldin badute, sektore feminizatueta izan ohi da, soldata eskasarekin eta balio sozial txikiarekin. Hala, gizarte-estratifikazioa ez ezik, sexuaren arabeko lanaren banaketa ere iraunarazten da.

Ez dago irakurketa interseksionalik, kontuan hartzen duena hezkuntza (sexista) dela eta, enplegua ez izatea emakumearen bizi-proiektuaren zati garrantzitsu bat. Lan-munduan sartzeko eragozpenak, batzuetan, emakumeen bizitza esparru pribatura lotzen zuen testuinguru soziokultural baten genero-sozializazioaren ondorioa dira.

Beste alde batetik, emakumeekin ahalduntzea, norberaren desira eta erabakiak hartzeko gaitasuna berreskuratzea lantzen direnean, ez ditugu ahaztu behar gorputzaz eta haren zaintzaz berriz jabetzea, haren denboraz eta eritmoaz, bere espazioaz, eta sustatu behar dugu taldeko eta komunitateko espazioetan parte hartzea.

Esperientzia traumatikoek emakumeen gorputzetan utzi dituzten orbainei begiratu behar diegu. Landu edo integratu ez denean, gorputzak beti gogoratzen du bizitakoa. Maila kognitibotik ezin denean landu, interesgarria litzateke gorputzetik lantzen saiatzea, emakumeak osatu eta errehabilitatzeko.

Emakumeen bizi-esperientzietan sarri errepikatuko diren indarkeria matxistei ere arreta jarri behar zaie. Emakumeei akonpainamendua egitean, urrutira begiratu behar dugu, edozein bizi-fasetan indarkeria jasan ote duen ikusteko.

Bazterkeria larrian dauden pertsonen eta, bereziki, emakumeen bizitzan, haurtzarora eta nerabezarora izan daitezke abiapuntu, posible baita garai horretan bizi izana abusu eta tratu txarren lehen esperientziak. Garai horiek marka dezakete emakumea munduan zehar nola mugitzen den eta nola erlazionatzen den. Bizipen horietatik abiatuta, litekeena da biktimizazio anitza izatea. Tratu txarrak haurtzaroan gertatzen direnean, eta pertsonaren bizi-historian lantzen eta integratzen ez direnean, bazterketa-prozesuetan arrisku-faktore garrantzitsu bihurtzen dira, eta ezin dugu hori alde batera utzi bizitza on bateranzko prozesuak bideratu nahi baditugu. Garrantzitsua da jakitea emakumeak nola ikasi zuen erlazionatzen, zer atxikimendu-mota eraiki zuen eta nola ikasi zuen maitatzen.

Bazterketa larrian dauden emakumeen prozesuetan topatuko dugun indarkeria matxisten beste adierazpen mota bat maila sinbolikokoak dira. Bazterkeriak bere horretan estigma badakar, beste faktore batzuk gehitzean, hala nola osasun mentala, aniztasun sexual edo funtzionala, atzerritar jatorria eta abar, indarkeria sinbolikoak pisu handiagoa hartzen du, eta pisu hori areagotu egiten da estigma eragiten duen egoeraren batean (espetxea, prostituzioa, beste batzuk) egonez gero, edo GIBa bezalako gaixotasun bat izanez gero.

Bizitza on baterako prozesuetan beharrezkoa da pertsonen eta, zehazki, emakumeen ahalduntzea; baita alderdi ekonomikoan eta sozialean ere. Horretarako, estigma horien aurka borrokatzen diren eta aniztasuna onartzen eta balioesten duten gizarte- eta komunitate-dinamikak indartu behar ditugu.

Azkenik, emakumeek jasaten duten zuzeneko indarkeria aipatu behar dugu, bai eremu publikoetatik (kalea) igarotzean, bai zerbitzu edo erakundeetan (aterpetxeak, etxebizitzak...), bai harreman afektibo-sexualetan.

Sexu-indarkeria da emakumeek gehien sufritzen duten indarkeria-motetako bat, eta tabu oso handiarekin lotuta dago; beraz, lan-ildo nagusietako bat izan behar du, gainerako indarkeriekin batera. Gogoan izan behar dugu beharrezkoa dela azpiegiturak, espazioak, zerbitzuen dinamikak eta akonpainatzen ditugun pertsonen arteko harremanak birpentsatzea, betiere babes eta segurtasuna helburu izanik eta feminismotik abiatuta. Bizitza erdigunean jarri behar dugu, eta pertsonen bizitzarako zerbitzu jasangarriak sortu, batez ere zaugarritasun handiena dutenentzat: emakumeak eta kolektibo ez-normatiboak.

Hona hemen genero-sozializazioaren bidez emakumeen heziketan transmititzen diren ezaugarri garrantzitsu batzuk, esku-hartzearen oinarri izan daitezkeenak:

Genero-sozializazioak eragindako <b>“ezaugarri erresilienteak”:</b>	Genero-sozializazioak eragindako <b>“ezaugarri oztopatzaileak”:</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hausnartzeko eta introspektorako gaitasuna.</li> <li>• Bizikidetzaren eremuak zaintzeko trebetasunak.</li> <li>• Sareak sortzeko trebetasunak.</li> <li>• Enpatia eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko joera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero-zaugarritasuna eta babesgabetasuna: hainbat gizonen babesteko beharra, indarkeria matxisten adierazpen desberdinekiko tolerantzia-maila handia.</li> <li>• Bikoteen mendekotasun emozionala, harreman toxikoak eta abusuzkoak sortzen dituenak.</li> <li>• Norbere buruarenganako indarkeria, norbera ez zaintzetik hasi eta adierazpen dramatikoagoetara.</li> <li>• Bere bizi- eta talde-proiektua gidatzeko motibaziorik eza.</li> </ul>

### 4.3. Gogoetarako eta eztabaidarako elementuak

Esku-hartze sozialeko profesionalek hainbat diskriminaziok zeharkatutako errealitate konplexuetan akonpainatzen diete pertsonari. Generoa da garrantzitsuenetako bat. Hori dela eta, funtsezkoa da genero-ikuspegiaren eta interseksionalitatearen inguruko prestakuntza.

Profesionalaren begiradak bi ikuspuntu horiek kontuan hartzen ez baditu, akonpainatuko duen pertsonaren egoeraren ebaluazioa partziala izango da, eta berdin egingo duen esku-hartzea ere.

Gizarte-bazterketa larrian dauden pertsonari laguntzeko lanean, kontuan hartu behar da genero-sozializazioak haien bizi-bilakaeran izan duen eragina. Aldagai horrek akonpainatzen dugun pertsonak zer gatazka dituen ulertzen lagunduko digu, bai eta bere identitatea eraikitzearekin hain lotuta dauden tentsio horietatik sor daitezkeen erresistentziak zein diren ere. Genero-aginduek errealistak ez diren espektatibak sortzen dituzte, eta horrek haserrea eragiten die gizonari, emakumeei eta pertsona ez-bitarrei. Generoak eragindako ondorearen adierazpenei lekua emateak aukera ematen du beste pertsonetarako eta komunitateetarako harremanetan norbera izateko alternatibak eraikitzeko.

Genero-aginduek eragin desberdina dute esleitutako generoaren eta aukeratutako generoaren arabera. Emakumeez eta pertsona ez-bitarrez ari garenean, kontuan izan behar dugu indarkeria matxistekin lotutako biktimizazio-esperientziak egon daitezkeela beren bizitzako une desberdinetan. Seguruenik, ez dute akonpainamendurik jaso. Inoiz ez da berandu bizitako esperientzia traumatiko baten ondorioak lantzeko, esperientzia hori lantzen eta bizi-historian txertatzen laguntzeko.

Gizonekin egiten ditugun gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzeetan, garrantzitsua da kontuan izatea nola eraiki duten gizentasuna eta, era berean, beren bizi-prozesuei arrakastaz aurre egitea zailtzen dizkieten zaugarritasun-egoerak gairak ordutan gizentasun horren zer alderdi diren oztopoak. Berebiziko garrantzia du, halaber, bazterketa larrian dauden gizonek indarkeriekin duten harremanari heltzeak. Alegia, beren gizentasuna berresteko edo gatazkak (norberaren baitakoak eta pertsonen artekoak) konpontzeko indarkeriari ematen dioten tokia aztertzeak. Indarkeria ikasia da, eta instrumentala. Logika horretan sartzen da gizon gisa desikasteko eta barneko eta kanpoko gatazkei aurre egiteko beste tresna batzuk eskuratzeko aukera.

Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzeak bizitza jasangarri baterako prozesuak bultzatu behar ditu, baita bizitza osorako laguntza beharko den kasuetan ere. Zaugarritasuna eta interdependentzia gizakiaren berezko egoerak dira, eta horregatik, pertsona bakoitzak bere buruari zor dion kontzientzia eta ardura hartzea landu behar dugu, norbere burua zaintzeari dagokionez. Baina irmotasun berarekin,

komunitateak hartu behar du ongizate-maila eta bizimodu ona lortzeko laguntza behar duten pertsonen sostengua izateko ardura.

Horregatik guztiagatik, etika eta pedagogia feminista ezinbesteko paradigma da gizakia, haren harremanak eta egungo testuinguru soziokulturalean nortasuna nola eratzen den ulertzeko. Erreferentzia-esparru teoriko-praktikoa zabaltzea funtsezkoa da, helburua komunitate justuagoak eta gizatiarragoak lortzea baldin bada.

# 5. KASUEN AZTERKETA GENERO- IKUSPEGITIK ETA IKUSPEGI INTERSEKZIONALETIK



Hurrengo atalean, formakuntza-saioetan aztertutako kasuen azterketan ateratako ondorioetako batzuk aztertuko ditugu. Konplexutasuna dela eta, txostenaren helburua ez da kasu bakoitzari dagozkion alderdi guztiak jorratzea. Kasuetatik hirutan arreta jarri eta, genero-azterketa eta azterketa interseksionalaren bidez, ikuspegi profesionala zabaltzen lagunduko duten elementu batzuk aipatuko dira.

Esku-hartze sozialean dabilzan profesionalentzat guztiz interesgarria da lortutako ezagutza teorikoak eguneroko praktikara eraman ahal izatea da. Era berean, funtsezkoa da lan profesionalaren garapenean sortzen diren ezagutzei buruz hausnartzea. Pertsonekin lan egitea da arlo horretako ezagutza-iturri nagusia.

Hori dela eta, Kasu-azterketa aukeratzen dugu metodologia gisa, eta kasuak lantaldeen irizpideen arabera aukeratzen ditugu. Hautaturiko kasu bakoitza prestakuntza talde bakoitzeko profesional guztiek ezagutzen zuten, eta hura aztertzeko talde gisa egindako deskribapen bat eta pertsona laguntzaile guztiek partekatutako ibilbidea aurkeztu ahal izan ziren. Era berean, genero-azterketaren bidez parte-hartzaile bakoitzak bere ikuspuntua aztertzeko aukera eman zigun, banakako eta taldeko tentsioak, praktika onak eta berrikusi beharrekoak nabarmenduz.

Lehen esan dugun bezala, genero-azterketa eta ikuspegi interseksionala ezin dira irtenbidetzat ulertu, baina ikuspegi desberdina ematen digute laguntzen ari garen pertsona nor den, errealitatea nola interpretatzen duen eta nola erlazionatzen den jakiteko. Bigarrenik, aukera ematen digu geure burua profesional gisa berrikusteko; izan ere, gure genero-esperientziak berak eta beste nortasun-ardatz batzuek zapalkuntzan edo pribilegioan kokatzen gaituzte, eta eragina dute bazterkeria larrian dauden pertsonen laguntzeko lan-esparruan jarduteko dugun moduan.

Kasu-azterketa teknika kualitatibo bat da eta aukera ematen du, lan-taldea laguntzen ari den pertsonaren errealitatea ez ezik, laguntzaileen kokapena ere aztertzeko, generoarekin zerikusia duten ikuspegi alternatiboak eta bai norberaren, bai taldearen barne-tentsioak jorratuz. Hausnarketarako, elkarrizketarako eta lan egiten den errealitatea ezagutzeko tresna bat da, bai eta jadanik modu egokian egiten ziren praktikak identifikatu eta izendatzeko, genero-desberdintasunaz jabetzearekin, indarkeria matxisten aurrean jarrera irmoa izatearekin eta pertsonen umiltasunarekin zerikusia zutenak.

## **1. kasua. Feminitate ez-normatiboari buruzko hausnarketak**

D. 40 urteko emakumea, etxegabea, udal aterpetxean eman zaio laguntza. Ez du bikotekiderik, ez du seme-alabarik, ez gizarte- edo familia-sarerik. Nazionalitate bikoitzeko atzerriko migratzailea. Bikote ohi bat zela eta etorri zen. Gogo eta motibazio gutxi erakusten du edozein jarduera egiteko, baita norbere zaintzarekin zerikusia dutenak egiteko ere. Ez du interesik beste pertsona batzuekin harremanak izateko, ezta profesionalen taldearekin ere.

Kasua aztertzen hasteko, garrantzitsua da hura ezagutu eta aztertzeko zer alderdi azaltzen diren eta zer informazio ematen den. Lehenengo ondorioetako bat pertsonaz jasotzen den informazioak duen garrantziaz jabetzea izan zen, esku-hartzea diseinatzeko horri emango baitiogu garrantzia.

Gure baliabidera jotzen duen pertsona bati buruz informazioa jasotzen dugunean behar duen laguntza emateko, honako datu hauei erreparatu ohi diegu:

- Laguntza eskatzera eraman duten gertaerarik hurbilenak.
- Antzematen ditugun gabeziak: gabezia materialak, trebetasunak eta gaitasunak...
- Pertsona horren prozesua oztopa dezaketen zailtasunak (osasunarekin lotutakoak, administratiboak eta beste).
- Lortu nahi diren helburuen aurrekariak (formakuntzari dagozkionak, lan arlokoak, bestelakoak).

Ez da NOR DIREN sakontzen. Ez dirudi hain garrantzitsua denik. Horrela, ontzat ematen dugu pertsona guztiek antzeko funtzionamendua dutela gure baliabidean sartzen direnean, gutxi gorabehera behar berak dituztela, eta beren bizi-proiekturako desio berberak dituztela. Gauza gehiegi jotzen ditugu jakintzat, eta, ez diegu erreparatzen, besteak beste, genero-desberdintasunei.

Garrantzia ematen diogunaren araberakoak izango dira Banakako Planaren helburuak, eta, ondorioz, hori izango da, seguruenik, jasoko dugun informazioa. Prozesu oro dinamikoa dela eta garatuz doala kontuan hartuz, helburuak aldatuz joan daitezkeen arren, interesgarria da lagunduko dugun pertsona, zeinarekin lan egingo dugun, gehiago ezagutu, eta, horrela abiapuntu zehatzago eta egokiagoa ezartzea. Pertsona bera da bere prozesuaren helburu nagusi eta subjektua.

Lehenengo kasuari ekiten zaionean, ia ez da emakumea nor den jakiten lagunduko digun informaziorik ematen: mundua nola pentsatzen eta interpretatzen duen, bere esperientziak nola bizi dituen eta nola sentitzen den, eta oso gutxi nola erlazionatzen den. Nola bihurtu den gaur egun den emakumea.

Laguntza ematen diegun pertsonen beharrekin bat datorren esku-hartzea diseinatzeko, baita genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektionaletik ere, funtsezkoa da aurreko guztia ezagutzea (entzunez, funtsezko galderak eginez eta behatuz, arretaz behatuz). Beharrezkoa da gure laguntza-ereduan informazio horren bilketa bermatzea eta kasu bat aztertzen dugunean jasotako hori azaltzea.

Pertsona bakoitzak gertatzen zaiona bere buruari nola kontatzen dion ulertzea, pertsona horrek bere burua eta bere bizi-esperientziak ulertzeko duen modura hurbiltzea da.

Hori ezagutzea beharrezkoa da gure komunikatzeko modua eta harena bat etortzeko. Bestela, hizkuntza bera hitz eginda ere, ez dugu elkar ulertuko. Hitz berak erabili arren, esanahiak desberdinak izango dira berarentzat eta talde profesionalarentzat.

Lehen aipatu dugun bezala, emakume zein gizonek esanahi eta balio desberdina ematen diegu gure bizi-proiektuaren oinarri diren alderdiei: lana, familia... are desberdinagoa ez bitar gisa identifikatuz gero. Generoaren azterketari pertsona bakoitzaren banakotasunaren beste ezaugarri batzuk gehitu behar zaizkio, pentsatzen eta bizi duenari interpretatzeko eta esanahia emateko moduan eragina dutenak. Faktore kulturalak beti du pisua eta kontuan hartu behar da. Ez dakiguna aurreiritziek saihestuz galdetzen da. Talka kulturala profesional guztiok landu beharreko zerbait da.

Horretan guztian, generoaren sozializazioa oso presente dago; izan ere, txikitatik gizon edo emakume gisa (beti modu bitarrean) bizitzatik espero behar duguna erakustez gain, onargarriak diren emozioak eta onargarriak ez direnak erakusten dizkigute, baita esperientzia negatiboek aurre egiteko eta erlazionatzeko modua ere.

Horregatik da garrantzitsua emakume, gizon edo pertsona ez-bitar gisa nola eraiki den jakitea:

- Ezagutza: Balioak, ideiak eta sinesmenak, aurre egitea, esleipena...
- Emozioa: nola bizi duen gertatzen zaiona, zein emozio adierazten dituen eta zein ez, zeintzuk identifikatzen dituen eta zeintzuk ez, zeintzuk onartzen dizkion bere buruari eta zeintzuk ez.
- Barne- eta kanpo-esperientziak: nola kudeatzen eta aldatzen dituen emozioak, sozializatu den moduaren arabera garatutako balio, ideia eta sinesmen horiei dagokienez.
- Portaera eta harremanak: nolako jarrera erakusten duen eta nola erlazionatzen den bere buruarekin, baliabidea partekatzen duten gainerako pertsonekin eta profesionalekin.
- Hori guztia sexualitateak zeharkatzen du: identitatea, orientazioa, generoa, desioa, erotikotasuna, harreman afektibo-sexualak eta gorputza.
- Bizitako edo egindako indarkeria matxistak.

Generoa aldagai gisa hartzea, ordea, ez da nahikoa. Adinak, kulturak, jatorriak eta jasan beharreko arrazismoak, aniztasun sexualak, aniztasun funtzionalak edo osasun mentalak, aukera faltak, estigmak eta abarrek eragina izango dute haren begiradan eta gizarteak itzultzen dion horretan.

Ikus dezagun I. kasuko adibide hau:

D. Emakumea, 40 urte, nazionalitate bikoitzeko atzerriko migratzailea. Bikote ohi bat dela eta etorri zen. Familia- eta gizarte-sarerik gabea. Edozein jardueratarako apatia eta motibazio falta erakusten du, baita bere osasuna zaintzeko eta bere bizi-proiektuan aurrera egiteko ere. Ez du loturarik ezartzen edo harremanik egiten.

1. D. Ez du betetzen emakume batengan arrakastaren sinonimo diren genero-agindurik edo rol sozialik: edertasuna eta autozainketa, alaba-emazte-ama rola, zaintzaile rola...
2. Orokorrean erakusten duen jarrera apatikoa eta motibazio eza hainbat faktorek eragin dezakete, besteak beste, generoarekin lotutakoek.
3. Bere burua sentitzeko modua eta gizarteak bera irakurtzeko moduz uste duena ezagutzea, funtsezkoa izan daiteke D ulertzeko eta bere egungo egoera hobetzeko ekintza zehatzak egiteko. Lehenengo bere autoestimua eta onarpena.

Ikuspegi interseksionala kontuan hartuta, honako alderdi hauek aztertuko ditugu:

1. D.-k 40 urte ditu, eta, beraz, genero-aginduei heldu behar diegu kontuan hartuz adin horretan emakumeek gizartearen baitan kapital erotikoa galtzen dutela, amatasuna aukera zailagoa bihurtzen hasten dela, lan-mundura sartzea eta familia-nukleo bat eraikitzea zailtzen diren gisan. 20, 30 edo 60 urterekin aldatu egingo litzateke egoera.
2. D. Europar Batasunetik kanpoko migratzailea da, eta, beraz, gizarte- eta familia-ingurunerik ez izateaz gain, deserrotze eta dolu ugari bizi izan ditu, zeinak landu ahal izan dituen edo ez, baita burutu ez den migrazio-proiektu bat ere, gizon izanez gero desberdina izango litzatekeena. Hala ere, gaztelaniaz hitz egiten du eta nazionalitate bikoitza du; bi ezaugarriek edozein helburu errazten diote harremanei, lanari eta abarri dagokienez.

### **Zein dira kasuak dakartzan gatazkak? Non kokatzen ditugu? Ondorioak eta esku hartzeko gakoak**

Profesional-taldeak lau tentsio-iturri identifikatzen ditu D.-rekin lanketa egitean:

1. **Apatia eta motibazio falta:** egoera hori leheneratzea oso zaila da, nahiz eta profesionalak ikusi duten, D-k, ibilbide bat egin ondoren, baliabidera iritsi zenetik gaur egun arte aldaketa esanguratsuak izan dituela, batez ere, autozainketari eta laneratzeko motibazioari dagokienean aurrerapenak. Taldearen ikuspegi-aldaketa hori interesgarria da aztertzeko: lehenik, D.-ren egoeran aurretik eta ondoren zer aldatu den; bigarrenik, taldeak eta jasotako laguntzak zer eman dion D.-ren egoera animikoan eragin izan ahal izan duena.

Bi faktore izan daitezke aldaketa sustatu dutenak:

- a. Egonkortasun eta segurtasun handiagoa ostatuan: bazterketa larrian dauden pertsona etxegabeen ibilbideetan, etengabeak dira etxerik ez izateari dagokion egonkortasunik eza eta hainbat mailatako segurtasunik eza. Espazio egonkorra, segurua eta “kontraprestaziorik gabea” izatea karga positibodun Bizitzako Gertakari Estresagarria izango litzateke. Horrek aldaketa nabarmena dakar pertsonaren bizitzan, egokitzapen ona izanda ere erraza ez dena, eta, babes egokia eskainita, denborak aurrera egin ahala, aldaketa onuragarriak eragingo ditu.

Genero-ikuspegitik, txostenean hainbat ataletan aipatu duguna baloratu behar da: bazterketa larrira eta etxerik gabeko egoerara iristen diren emakumeak hamaika saiakera egindakoak dira, osasun-baldintza okerragoetan iristen dira eta zaurgarritasun handiagoa dute. Bestalde, egoera horretan dauden emakumeek, gizonek baino eragin negatibo handiagoa dute beren autoestimuan, beren buruaz duten irudian, beren lorpen-gaitasunean, baita beren osasuna eta segurtasuna hautemateko duten moduan ere. Beraz, segurtasuna, hurbiltasuna eta baldintzarik gabeko laguntza, errespetua eta tratu ona ematea izan behar da emakume bat ardatz duen jabekuntza-prozesu bateko elementu nagusiak. Egoera horretan dagoen emakume baten oinarrizko beharrak asetzea, bera zorretan dagoela, erabiltzen edo gutxien ari direla sentitu gabe, ekintza politiko bihurtzen da.

- b. Taldearen irmotasuna eta iraunkortasuna baldintzarik gabeko laguntza emateagatik, baita bertan egotetik soilik, “hor egotetik” (D.-k berak taldearekin harremanak izateko agertzen dituen eragozpenengatik).

**2. Ez du jardueretan parte hartzen eta ez du komunikazio errazik taldeko pertsonekin.** Ez dirudi loturak egiten dituenik. Horregatik, taldeak hainbat estrategia erabiltzen ditu harengana bere gogoz kontra edo presionatu gabe hurbiltzeko. Badirudi ez duela eraginik... baina D.-k hobera egiten du.

Lehenik eta behin, harreman pertsonal eta sozialetarako zailtasuna duten pertsonen laguntzen diegunean, ez dugu emakumeengan pentsatzen. Genero-estereotipoetatik abiatuz gero, loturarik ez sortzea, mendekotasun emozionalik ez izatea edo berdinen aurreko axolagabekeria ez dira femininotasunari lotutako ezaugarriak. Horregatik, harridura eta gatazka sortzen ditu. Segur aski, emakume bat denean horrela jokatzen duena eta ez gizon bat, pazientzia handiagoz eta inplikazio gehiagorekin ekingo zaio laguntza emateari. Zenbait hipotesi balora daitezke:

1. hipotesia: Ez da ulertzen emakume izanik bakardadea eta loturarik eza aukeratzea, gizonetzko baten kasuan baino arrazoi konplexuagoak bilatzen dira;

2. hipotesia: Gaitzespen-portaera batek etsaitasun gutxiago sortzen du emakumea izanik, eta profesionalek ez dute hainbesteko erresistentziarik harengana hurbiltzeko, beste behin, gizona ez bada.

3. hipotesia: Ahultasunaren eta mendekotasunaren ideiekin lotuta, emakumeak bakarrik ez uztera bultzatzen gaituzten genero-aurreiritziak egon daitezke, horrela egotea erabaki badute ere.

Bigarrenik, esku-hartzean uste dugu ekintza bakoitzak erreakzio bat duela (gutxi-asko berehalakoa, gehiago edo gutxiago ikusten dena), eta ez badu (edo ez dugu ikusten) ez dela eraginkorra eta gauzak bere horretan uzten dituela, baina ez da hala.

Hain zuzen, ekintza edo ez-egite bakoitzak inguratzen gaituena betikotzeko edo aldatzeko joera du. Gure lana modu kontzientean eta berariaz diseinatu behar dugu. Baina emaitzak ez ditugu beti berehala ikusten, eta, batzuetan, ez dira aurreikusi genituenak. Hala ere, egiten dugun esku-hartzeak pertsonaren aurrerapena erraztuko du, ezaugarri egokiak dituen heinean:

- Denboran jarraitua izatea, pertsonak eskatzea erabakitzen duenerako.
- Irisgarria eta hurbilekoa izatea.
- Begirunea eta tratu onak bermatzea.
- Pertsona eta haren aniztasuna erdigunean jartzea.
- Behar diren laguntzak ematea, epaiketarik, gehiegizko babesik edo prozesuen fiskalizaziorik gabe.

D.-ren esku-hartzean egindako ekintzak aztertuta, profesional-taldeak ezaugarri horietako asko identifikatzen ditu, guztiak ez badira. D.-k hobera egiten du. Beraz, pixkanaka gerta daiteke baldintzak ematea D.-k beste urrats batzuk eman ditzan (adibidez, beste pertsona batzuekin loturak sortzea...). Hala ez bada, taldeak ere egoera hori errespetatu eta onartu behar ditu.

**3. Ez du harreman onik emakumeekin, oro har, eta profesionalekin, bereziki:** taldeak egoera horri buruzko hausnarketa egiten du, D.-ren ohiko jokabidea baitirudi. Hala ere, psikologoarekin eta gizarte-langilearekin harreman ona duela aipatu dute. Hala ere, errazago erlazionatzen da gizonekin, eta adibide gisa taldeko hezitzailearekin duen harreman ona jartzen da, bai eta aurretik izandako lagunen bat ere. Kasu honen azalpenean, etxeko kideekin izandako

hainbat gatazka azpimarratzen dira, baita izan dituen lagunen bikotekide ohi emakumeekin ere.

Gai hori ez da sakon aztertzen, eta, beraz, zenbait galdera daude hausnartzeko:

- Emakumeekin bakarrik al ditu gatazkak? Gerta al daiteke berak arazo gisa identifikatzea baliabidea iristean izan dituenak, baina gizonekin ere eduki izana?
- Mesfidatia al da emakumeekiko harremanetan, beretzat garrantzitsua izan den emakume baten aldetik (ama, familia, adiskidea, bikotekidea...) abandonua, desengainua edo bortxa sentitu zuelako?
- Izan al daiteke gizonekiko harremana errazagoa, bizirautek tresna gisa beste gizon baten babesa bilatu baitu beste gizon batzuen aurrean?
- Gizonezkoei laguntza eta babesa eskatzea gizonezko batzuen artean maskulinitasun hegemoniko nabarmenena bultzatzen duen babes-rolarekin konekta daiteke?

- 4. Ez dago nahikoa informazio lanegiteko:** D.-ren apatiak eta hezkuntza-taldearekin lotzeko dituen zailtasunek zaildu egiten dute harekin komunikatzea eta, beraz, hura ezagutzea. D. zaintzen duten profesionalekin koordinatzea funtsezkoa da, D.-rekin parte hartzen duten pertsona guztiek hari laguntzeko ezagutu beharreko zailtasunak eta alderdiak bateratu ahal izateko.

Beste profesional batzuekin koordinatzerakoan, kontuan hartu behar dira genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala. Baliabidea edo informazioa ematen diguten profesionalak ikuspegi horretan kokatuta dauden eta emandako arretak aurreko guztia kontuan hartzen duen jakin behar da eta, hala bada, praktika ona jaso eta aurrera begira laguntza hobetzeko ekintzak adostu behar dira. Hala ez bada, emandako informazioari guk begiratu beharko diogu aurretik aipatutako ikuspegien bidez.

## **2. kasua. Gizontasun hegemonikoa vs. bazterketa larriko gizonen errealitatea**

S. 65 urteko gizonezkoa, etxerik gabe, gaueko aterpetxetik laguntzen zaiona. Atzerriko migratzailea, nazionalitate bikoitza du. Harremanetan dago emazte ohi eta seme-alabekin. Lan prestakuntza eta esperientzia ditu. Aktibo dauden kontsumoak ditu.

---

Prestakuntza taldean bigarren kasua irakurri ondoren, honako galdera hau egin zitzaien saio honetan parte hartu zuten profesionalei: Zer da irakurri ondoren bururatzen zaizuen lehenengo gauza? Erantzuna: zerbait ez zetorrela bat.



Izan ere, pertsonaren egoeraren deskribapenak (berriro ere bere egoerarenak, eta ez pertsonarenak) gizon bat aurkezten zigun, S. deituko dioguna, adin ertainekoa eta bere tesituratik ateratzeko gaitasun handia duena: Europar Batasunetik kanpoko migratzailea bai, baina nazionalitate bikoitza duena, hizkuntza ondo ezagutzen duena, gaztelania izanik ama-hizkuntza, ikasketa homologatuak eta herrialde honetan estatus oneko lan batean esperientzia profesionala dituen. DBE hartzailea da. Trebetasun sozialak eta kultur maila altua ditu. Ezkondua eta banandua da, baina harreman ona du bai bikotekide ohiarekin bai seme-alabekin. Hilero haien mantenuaz arduratzen da, telefonoz harremana mantentzen dute eta bisita egiten die. Baina alkoholarekiko mendekotasun handia erakusten du, eta bizitza osasuntsu eta onari berriro ekiteko arazo nagusitzat jotzen da.

Mendekotasunak izan ezik, eta garrantzirik kendu gabe, itxuraz dena dauka alde bere egoera hobetzeko. Hala ere, hezkuntza-taldeak frustrazio handia aipatzen du, pixkanaka hondatzen ari delako eta alkoholaren kontsumoak egunaren amaieran, egunero, autonomia pertsonala galarazten diola ikusten dutelako.

Kasu honetan, besteak beste, funtsezko bi hausnarketa egin ziren genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektzionaletik: lehenak pertsona horrek bizi dezakeen gatazka adierazten zuen. Bigarrenak, artatu eta laguntzen duen taldearen gatazka aipatzen du.

1. gogoeta: S. "gizon eredu" gisa esnatzen da egunero, eta sozialki maskulinitasun hegemonikoari lotuta balioesten diren helburu guztiak bete ditu: familiako aita arduratsua, ekarpen ekonomikoagatik eta aldizkako komunikazioagatik; estatus oneko lana, prestakuntza eta kultura. Baina zailtasun nagusitzat mendekotasuna du. Gai den pertsonatzat aurkezten da, baina ezin da irten bere burua suntsitzeko dinamikatik (taldeak dioen bezala).

Profesional-taldearen gogoetan, agerian jartzen da gizarte-aginteez garrantzi handia dutela S.-k proiektatzen duen irudian, eta ez dagokiola pobrezia-egoerari, familia- eta gizarte-laguntzarik ezari, mendekotasun larriari eta seme-alabengandik banantzeari, ezingo lukeelarik aita papera jokatu, ezta eguneroko bizitzan presentzia izan ere.

Irudi horrek zerikusia du gainerako pertsonen, gizarteak, ikustea nahi duenarekin. Irudi horrek genero-ondoeza ezkuta dezake, eta horrek, besteak beste, eragina izan dezake egungo egoeran eta mendekotasunetik eta, beraz, bazterketa larriko egoeratik "ezin" irtete horretan.

Bazterketa larrian dauden gizonen kasuan, maskulinitasun hegemonikoaren profila ez ematea zama astunegia izan daiteke aurrera egin ahal izateko. Eta, hala ere, izan daiteke kasu honetan S.-ri eragin diezaiokkeen faktore negatiboenetarikitzat ez identifikatzea.

Esku-hartze sozialean genero-ikuspegia txertatu behar da gizonei laguntzean, beste esanahi bat emanez gizon izateri eta maskulinitasunari atxikitako balio kulturelei. Adibide bat da lanak, soldatapean noski, gizonezkoarentzat hartzen duen balioa. Lana

izatea garrantzitsua da, zalantzarik gabe. Lanak ekarpena egiten dio bizi den pertsonari eta gizarteari. Alderdi sinboliko kolektiboan egin beharko ez litzatekeen lotura lanaren eta pertsonaren duintasunaren eta balioren artekoa da. Pertsonak duintasuna du eta baliotsua da existitze hutsagatik, lan egin nahiz ez. Lan egiten duen edo lan egiten ez duen gizon batek erosteko ahalmen handiagoa edo txikiagoa izango du, modu autonomoan biziko da edo laguntzen edo beste pertsona batzuen mende egongo da... baina ez da gizon gehiago edo gutxiago izango horregatik.

S. egunero borrokatzen da inguruko pertsonak ikustea nahi duenarekin eta ispiluan ikusten duenarekin. Kasua aztertzean, gogoeta egiten da ea S.-ri kordea galtzea eragiten dion alkoholaren kontsumoa jasaten duen sufrimendua neutralizatzeko erabiltzen duen estrategia ote den, gizon gisa gizarteak espero duenari ez erantzuteagatik duen erru-sentimendua isilarazteko asmoz. Berak duen mendekotasun-dinamikan errudun-sentimendua behin eta berriz elikatu egiten da. Bestalde, gizarte-epaiketak eragin diezaiokeen lotsa-sentimenduari eta komunitateak, profesionalek, bere ingurune afektiboak (emakume ohia eta seme-alabak, etab.) beragan jartzen dutela uste duen begiradari aurre egitea ez da lan erraza, eta aipagai dugun gizonak ihes egiten du horretatik, irudi bat sortuz, mantendu ezin duen maskara bat, alkoholaren kontsumoari esker apurtzen dena.

Barne-gatazka hori konpontzeak lan pertsonal handia ekarriko luke, laguntza zehatzekin, lehenik eta behin, arazoaren kontzientzia hartzeko. Euskarri nagusietako bat parekoen taldeak eskain diezaiokeena da. Emakumeen kasuan, talde hori existitzen da eta feminismoan oinarritzen da, emakumeek jasaten dituzten indarkeriak, baita genero-ondoezak ere identifikatu, ikusarazi, azaldu eta alternatibak eman dizkien mugimenduan. Horregatik, emakume bakoitzak hobeto uler dezake nor den eta zer gertatzen zaion. Emakumeek babesa sentitzen dute arauen, komunitatearen eta gizartearen eta familiaren esparruan. Hala ere, gizonen bakardadea nabaria da maskulinitasun toxikoari eta gizarteak espero duenari dagozkion ondoezekin topo egiten dutenean. Generoa sozializatzeko eta maskulinitasun hegemoniko eta arau-emaile hori eraikitzeak zer ekarri dien ez badakite, zaila da gertatzen zaienari izena jartzea eta bakardade sakon horretan bizitzea, elkar ulertzeko, partekatzeko eta laguntzeko beste gizonik izan gabe. Are gehiago, gizonengandik espero diren rola ez betetzeagatik taldeak berak bakartu edo barregarri uzteko beldurrez egonez gero.

Gizonekin esku hartzeko gakoetako bat genero-aginduak betetzen ez direnean generoak eragiten dizkien ondoezak lantzea litzateke. Laguntzarik eskatzen uzten ez dieten ezaugarri guztien deseraikitzea landuz, ez baitie uzten emozionalki heltzen, ez eta beren buruak ikusten, modu autokritiko eta samur batean, eta aldatzeko eta hobetzeko aukerarekin.

2. gogoeta: S.-ri laguntzen dion taldeak konplexutasun handiko egoera bati egin behar dio aurre. Alde batetik S.-ren aukerak ikusten dituzte, bere egunerokoan ondoan dituen beste pertsona batzuenak baino askoz handiagoak; bestetik, egoera larri horretatik ateratzeko proposamenen aurrean erantzun falta eta jasaten ari den hondatzea ikusten dute.

S.-ri behar bezala laguntzeko, aurreko puntua ulertu behar da eta berak nola kontatzen duen entzun. Era berean, kultura-faktoreari erreparatu behar zaio; izan ere, jatorri desberdina du, eta gizonekiko agindu, balio eta espektatiba sozialak berdinak izan daitezke edo ez. Kultura-faktorea garrantzitsua da; izan ere, gizarte-prozesuan oztopoa izan daiteke, edo esku-hartzean mesedegarri gerta daiteke, maskulinitasuna sozialki era anitzagoan eraikitzen bada (kasu hau, lehenengo aukerari dagokio).

Analisian zalantzan jartzen zen ea egokia zen S. errealitatearekin aurrez aurre jartzea. Eraiki duen eta aurrera egiten uzten ez dion irudi edo maskara horren aurrean jartzea. Beraz, baloratu beharreko bi jarraibide izango lirateke zeharka lan egitea, genero-ikuspegia duen terapia psikologikoaren bidez edo genero-ikuspegia duen gizarte- eta hezkuntza-laguntzaren bidez, parekoen talde baten laguntza batuz. Garrantzitsua da adieraztea S.-k antzerkia egiten duela, eta adierazpen artistiko oro pertsona bakoitzaren barne-mundua adierazteko bidea den gisan, interpretazioa espazio egokia dela beste izateko eta harremanak sortzeko modu batzuk probatzeko, bai eta beste era batera egin ezin izan diren esperientziak landu eta integratzeko ere.

Azken finean, lan-taldean gogoeta egin zen genero-ondoezek S.-rengan duten eragina ezagutzeak duen garrantziari buruz, jakiteko zer gatazkari egin behar dien aurre eta zein diren gatazka horiek sor ditzaketen erresistentziak, bere identitatearen eraikuntzarekin lotura estua dutenak. Nahiz eta S.-k bere zailtasunak onartzen dituela dirudien diskurtso bat erakusten duen arren eta bere egoerari buelta emateko eman beharreko pausoak identifika ditzakeen arren, genero-ondoezei buruz hitz egiterik ez badu, epaitu egiten badute eta gizon gisa izatea espero dena betetzen ez duelako epaitua sentitzen bada, ez gara ari lantzen S.-k bizimodu jasangarriago eta hobea lortzeko prozesu eraginkorra izateko elementu garrantzitsuenetako bat.

### **3. kasua. Tratu txarrak haurtzaroan: bazterketa-prozesuetan duten eragina**

43 urteko gizonezkoa, elkartearen hainbat baliabidetan artatua. Kalean zegoen bitartean, inguru irekian ematen zioten arreta, eta, orain, elkartearen egoitza-baliabide batean dago. Europar Batasunetik kanpoko migratzailea. Alarguna trafiko-istripuagatik. Osasun Mentalari dagozkion hainbat diagnostiko. Aurretik mendekotasunak zituen.

---

Kasu honetan, hiru alderdi zehatzetan sakonduko dugu, beste kasu batzuen aldean desberdinak direnak eta generoarekin beste leku batzuetatik erlazionatzen direnak. Horretarako, kasuaren aurkezpenaren paragrafo zehatzak irakurriko ditugu:

1. paragrafoa: “Urtero, diru-sarrera psikiatriko bat eskatzen du. Askotan, eskariz. Batez ere, urteko lehen lauhilekoan, garai hartan oso esperientzia traumatikoa izan baitzuen bikotekidea hil zen auto-istripu batean. Gaztetan ere abusuak izan ditu.”

Txostenean Bizitzako Gertakari Estresagarrien garrantzia adierazi da laguntza ematen diegun pertsonen bazterketa larria eragiten eta mantentzen duten faktoreen artean.

Kasu honetan, taldeak M.-ren egoerarekin (“nahierara” baliabideak erabiltzea) dituen tentsioetako bat argudiatzearen ildotik, oso labur aipatzen da gaztetan sexu-indarkeria jasan zituela. Geldi gaitezen gertakari horretan.

Sexu-indarkeria ondorio mota batzuk sor ditzakeen esperientzia traumatikoa da, eta, modu goiztiarrean (gertaeraren arabera) eta egoki (ingurune esanguratsu, elikagarri eta positiboan edo/eta profesional espezializatuetan) laguntza jasotzen ez bada, pertsonaren bizitza baldintzatu dezake, eta, ondorioz, disfuntzio handiak sor ditzake. Ez dira garrantzia txikiko esperientziak, kontrakoa. Esperientzia horiek kontatzen diren unea dena delakoa izanda ere, laguntzen ari garen pertsonarengan izan duen eta duen eragina zein den jakin behar dugu.

Sexu-indarkeriak epe laburrean, ertainean eta luzean izan ditzake ondorioak. Haurtzaroan edo/eta nerabezaroan indarkeria mota hori jasan duten pertsonen % 40k ondorio larriak ditu, eta ondorio horiek denboran zehar irauten dute eta bizitza egokia egitea eragozten diete. % 40 horren barruan, badira osasun mentalari buruzko diagnostikoak jasotzen dituzten pertsonak, mendekotasun-arazoak izan ditzaketanak edo/eta beste dimentsio pertsonal batzuetan zailtasunak dituztenak, hala nola afektiboan eta sozialean.

Inoiz ez da berandu bizitako esperientzia traumatikoaren ondorioak lantzeko. Pertsonak jasaten duen sufrimendua eta horri aurre egiteko erabiltzen diren mekanismoek eragiten dute pertsona hori NOR DEN horretan eta pertsona horrek pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzeko moduan. Garrantzitsua da berriz norbere buruarekin topatzeko eta berak erabakitzen duen hori izateko bide horretan laguntza eskaintzea, gertatu zenak bere erabaki eta pertzepzio guztiei eragin gabe.

Sexu-indarkeria jasaten duten gehienak emakumeak dira, baina hori haurtzaroan eta nerabezaroan gertatzen denean, arrisku-faktore bakarra adingabea izatea da. Emakumeek eta gizonak jasaten duten sexu-indarkeriaren artean aldea dagoen arren, ez da nahikoa, adin txikikoez ari garenean emakumea izatea arrisku-faktoretzat har dadin. Kasuen % 90ean, gizonak dira sexu-indarkeria erabiltzen dutenak.

Sexu-indarkeria jasaten duten gizonek ez dute gertatutakoa erraz kontatzen. Oro har, inork ez du biktima izan nahi, ez biktima gisa ikus dezaten, eta gizonezkoek are gutxiago hainbat arrazoi direla eta. Irakasten zaien maskulinitasunak ez die ematen biktima izateko aukera, eta are gutxiago sexu-indarkeriaren biktima. Sekretu horrekin, bortxaketa sexuala jasatearen erruarekin, esperientzia horiek direla eta desberdinak direla sentitzeak dakarren lotsarekin eta estigmarekin hazteak sufrimendu handia eragiten die biktimei. Genero-aginduen bidez, gizarte-espektatibak betetzen saiatzeak, bai emakumeengan bai gizonengan, sexu-abusuak dakarren guztia arrastaka daramatela, aurre egiteko modu desegokiak eta aldi berean traumatikoak ekar ditzake. Hori guztia hainbesteko minaren aurrean bizirik irauteko. Beharrezkoa da gertatutakoari beste esanahi bat ematea, pertsonak jasandako indarkeria uler dezan; indarkeria ez da haren errua, ez du zertan bizitza osoa baldintzatu, eta bere historiaren zati gisa gogoratzen ikas dezake, dagoeneko gertatu zena, aurrera jarraitu ahal izateko.

Pertsona batek gertatutakoa kontatzen duenean, entzun, sinetsi eta lagundu egin behar zaio. Laguntzen duten pertsonak indarkeria mota horren eta ondorio posibleen berri izan behar dute, bai eta esperientzia traumatikoa landu eta integratu ez bada pertsonak izan ditzaketen ezaugarrien eta aholku eman diezaieketen edo erator dakizkiekeen beste profesional eta zerbitzu espezializatu batzuen berri ere.

2. paragrafoa: “Hainbat diagnostiko psikiatriko izan ditu bizitzan zehar. Nortasun-nahasmendua, disoziazio-asaldura, egokitze-nahastea, depresio-nahasmendu handia sintoma psikotikoekin, eskizofrenia paranoidea, zehaztu gabeko nahaste psikotikoa eta substantzien erabileraren nahastea (kanabisa, kokaina, anfetaminak). Ludopatia. Era berean, bere medikazioa diagnostikoaren arabera egokitzen da. Saio autolitiko larrien aurrekariak ditu. Kalamua erretzeari uzteko eta berriro jokoan ez erortzeko ahaleginak egiten ari da. Ludopatia taldeko gizarte-langilearekin bilerak egiten hasi da berriro.”

Epe luzera sexu-indarkeriaren ondorioak pairatzen dituzten pertsonak, osasun-arazo larriak sortu dizkietenek, beren bizitzan zehar modu desberdinetan sufritzen dute. Haien defentsa-mekanismoek hainbat sintoma izan ditzakete, eta sintoma zehatzen multzorik ez dagoenez, ez da diagnostikatu, eta beste nahaste eta gaixotasun batzuekiko antzekotasunak bilatzen dira. Horregatik, diagnostikoak askotarikoak eta aldakorak dira, baina ez dira konpontzen horren guztiaren benetako arrazoia, indarkeriaren eragina eta ondorioak ez direlako tratatzen.

Horregatik, oso garrantzitsua da haurrak edo nerabeak sexu-indarkeriaren arloan duen esperientzia ezagutaraztea, eta horretan espezializatutako profesional batekin kontsultatzea. Indarkeria mota hori jasan dutenen bizi esperientzia osatzen duten sintoma, adierazle eta ondorioen collage horretan kokatzen jakingo du disfuntzioak, desegokitzapenak, sufrimenduak...

“Urtero, diru-sarrera psikiatriko bat eskatzen du. Askotan, hala eskatuta... Psikiatrarekin antolatzen du, eta, gainera, atsedena behar duela, kafea eta tabakoa utzi eta arriskuak saihestu behar dituela azaltzen du. Ospitaleratzeko prozesu osoa menderatzen du, eta

ospitalean “etxean bezala” edo “oporretan” sentitzen da. Taldeak uste du diru sarrera horiek gaizki erabiltzen dituela, oporrak hartu eta bere nahierara erabiltzen dituelako: orain sartu egingo naiz, orain atera egingo naiz... Baliabidera itzultzean, merezitako ongietorria ez geniola eman sentitu zuen, eta adierazi zuen ez genuela maite eta ideia txarrak izaten hasi zela. Ez dela hain ondo ateratzen. Pisuan esan du ez dituela bere lanak berehala hasiko, hurrengo astean baizik. Lagunek ez dute onartu esandakoa.’ Hezitzaileei esan die beren pribilegioak eta eskubideak galtzen ari dela.... Taldeak azalduko dio, alta eskatu eta ondo dagoela esaten badu, dituen jarduera eta zeregin guztiak berriro har ditzakeela, baita konpromisoak ere. Gure esku-hartzean koordinatu beharra ikusi genuen, ildo bera izateko eta mezu argia emateko. Bere konpromisoak eta erantzukizunak bete behar ditu. Ordutegiak eta lanak. Ez zaio gustatu tratua, eta, betetzen saiatu arren, esan digu galtzen ari dela eta ezin duela berak nahi duena egin. Eta horixe da, hain zuzen ere, taldeak askotan M.-rengan ikusten duen jarrera. Baliabideen erabilera desegokia eta gaixotasunaren manipulazioa, nahi ez dituen gauzak saihesteko.”

Azkenik, aztertu beharreko bi gai aurkezten dituen kasuaren zati honetan geldituko gara:

1. galdera. Taldeak uste du M.-k gizarte- eta osasun-baliabideak erabili egiten dituela eta gehiegi erabiltzen dituela.

Hasieran adierazi den bezala, saioan parte hartu duten pertsonak adierazi dute taldeak M.-ri arreta emateko duen arazoetako bat baliabideak, zentro psikiatrikoak edo elkarte bera “eskaripeko” deitzen dioten moduan, gaizki erabiltzea dela. Taldeak balio-iritzi bat egin du, erabilera hori M.-ren “manipulazio” gisa hartuta.

Pertsona horren portaeraren deskribapen subjektiboa egitean, haren jokabideari buruzko pertzepzio positibo edo negatiborantz bideratzen da balantza, kasu honetan bezala.

M.-ren bizitza aztertuz gero, profesionalek pertsona instituzionalizatua dela diote. Beraz, galdera hau egiten da: Zer portaera espero dugu instituzionalizatuta dagoen pertsonarengan, haiek erabiltzea ez bada? Eta zergatik da deserosoa pertsonak, nola dagoen kontuan hartuta, noiz eta non sartu nahi duen erabakitzea?

Ekuazioaren lehen zati honetan: M.-k bere prozesuan eman beharreko urratsei buruz hartzen dituen erabakiek M.-k bere prozesuaren eta egoeraren berri izan behar duela planteatzen diote lan-taldeari; izan ere, behin eta berriz adierazten da lagundutako pertsonak bere prozesuaren lider izan behar duela.

Horrek ez du esan nahi:

- Erabakiek emaitza batzuk edo besteak ekartzen dituztela derrigor, baina beti errespetatu egin behar dira.
- Pertsonaren eta baliabidearen eta pertsona profesionalen arteko harremanean eragina izan behar duenik, ondoren ikusiko dugun moduan.

2. galdera. M.-k bidegabetzat jotzen du aurreko horri buruz hartzen dituen erabakiek pribilegioen galeratzat hartzen dituen ondorioak izatea.

Gatazkaren bigarren zati hau M.-k erakusten duen ondoreari dagokio, ez zaizkiolako ondo iruditzen profesionalek errekurtsioan jartzen dizkioten mugak.

Garrantzitsua da M.-rekiko begirada holistikoa izatea eta haren bizi-dinamikak baloratzea, kontuan hartuz nolakoa den, nola sentitzen duen, nola kontaktzen duen gertatzen zaiona, nola erlazionatzen den. Hala, baliteke haren jarrerak eta portaerak zentzua hartzea. M.-k bizi duen instituzionalizazio-egoeraren baitan bere bizitza egituratuta dauka, segurtasuna eta egonkortasuna eman diezaion. Bestalde, mugitzeko modu hori erosotasun-eremua da beretzat, eta handik irtetea, aldaketa bakoitza, desoreka pertsonala izan daiteke, zeinaren ondorioz, biktima gisa agertzen den, arreta eskatuz eta beretzat ona dela eta egunerokoan kontrola ematen diola uste duena berrezarrit. Azkenik, egoera horretan egon arren, genero-sozializazioak pribilegiatu bihurtzen du. Ez da ahaztu behar gizon gisa segurtasuna eman diezaiokeen horrek, hura galduz gero, zalantzan jar ditzakeela bere nortasuna eta autoritatea besteen aurrean, azken batean, bere maskulinitasuna.

*“Arreta eta afektu handia eskatzen du. Batez ere profesionalena. Gutako batekin hitz egin nahi du beti, eta besarkadak eta besarkada gehiago eskatzen ditu. Askotan mugak eta eskatzen zaizkion erantzukizunak bera ez maitatzearen sinonimotzat jotzen ditu.”*

Tratu onetik hurbil egoteak, emozionalki eskuragarri egoteak, epaitu gabe, paternalista izan gabe eta laguntzen ditugun pertsonen erabakiak fiskalizatu gabe, ez du esan nahi beste pertsona kontuan hartzen ez duen edo harremanaren mugak gainditzen dituen eskaera bati erantzutea. Arreta jaso, erdigunean egon edo hutsune afektibo bat bete nahi izateak, sustrai sakonagoak ditu. Portaera horren arrazoiak ezagutu behar dira, eta ekintza psikohezitzaileak bilatu, M.-k berau utzi dezan. Pertsonen harremanekin zerikusia duen ia guztiak du generoa, eta lan-taldeak azpimarratzen duenean emakume profesionalak direla M.-ren eskaeren hartzaile nagusiak, genero-ikuspegitik aztertu behar dugu.

Ez da harrizkoa emakumeei zaintzaile-rola eskatzea, ez profesional gisa (izan ere, zainketen sektorean sartzen da esku-hartze soziala), baizik eta begirada patriarkalaren bidez, zeinak emakumea egiten du emakumea ama-emazte-ahizpa-lagun rolara murrizten duen, komeni denaren arabera, beste guztien zerbitzura, edozein testuinguru, une eta harremanetan, emakume gisa kategorizatu izanak ematen digun betebeharrak horretatik abiatuta, eta emakumeei harremanetako erantzukizun emozionala esleituz. M.-k ikuspegi bera izan dezake, eta horren arabera jokatzeko du, emakume profesionalek beren rola bete dezaten eskatuz gizon gisa dituen beharrei erantzunez.



Eskaera hori sexista da bi zentzutan:

- Emakumearen rola murriztu egiten duelako berriro ere eta besteen zaintzara bideratzen duelako.
- Izan ere, betikotu egiten du eskaera mota horiek M.-k erakusten duen heldutasun emozionalik eza, eta, halaber, lotuta dago gizonek emozioez, batez ere negatiboez, arduratzeari dagokionez jasotzen duten heziketarekin.

## **6. GENEROAREN INGURUKO GATAZKA-EGOEREN ANALISIA**

## 1. egoera: Hilekoa maskulinizatutako espazio batean.

“Aterpetxeko konpresak eta/edo tanpoiak hezitzaile taldeari eska dakizkioke, lehenengoa ez badago, harreran zaintzaileen taldeari. Emakumeek momentu desatsegina pasatzen dute segurtasun-langileei eskaera hori egitean. Horrez gain, hezkuntza-taldeari eskatzen bazaio, xuxurlekin egiten da beti, bulegoko atea itxiz eta konpresak geletara iritsi arte ezkutatuz.”

---

Profesionalek emakumeen beharrei erantzuteko erakunde barruan gauzatzen ari diren ekimenak aipatzen dituzte. Batetik, emakumeentzako berariazko baliabideak sustatzen ari dira, eta, bestetik, baliabide mistoak baztertzaileak ez izatea edo hala badira, gero eta gutxiago izatea.

Azken hori lortzeko, horrelako egoerak azaltzen dira, taldeak planteatzen baitu gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako baliabideak ez zirela pertsona guztiei eta haien behar guztiei erantzuteko diseinatu. Baliabide horiek laguntza-izaera nabarmena dute, eta gizonen bazterketara bideratuta daude, zeinetan emakumeak ere artatzen diren, eta, kasurik onenean, adierazi dugun bezala, azken horien eskaera batzuetara egokitzen diren.

Genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatuz laguntzeak, pertsonekin nola eta non esku hartzen dugun birpentsatzea esan nahi du. Baliabideak birpentsatzea ez da haien moldatzea, baizik eta, ahal den neurrian, eraldatzea, ezaugarri bereziak dituzten pertsonen aniztasunari arreta egoki eta duina emateko eta haien beharrak asetzeko laguntza zehatzak emateko.

Emakumeekin lan egiten denean, gizarte honen inertziak jokatu ohi da, zeinak horien beharrak alde batera uzten dituen, hala nola, aztergai dugun gaia: hilekoa. Hilekoa gai pribatua eta norberari soilik dagokiona da oraindik. Emakumei bakarrik eragiten dien gaia da, eta oraindik tabutzat hartzen da. Ez da horretaz hitz egiten, eta garrantzia kentzen zaio, nahiz eta ia emakume guztien esperientzia izan, aldaketa fisiko eta emozionalak dakartzana hilabetean, batez beste, zazpi egunez, hamarkadetan. Emakumeen osasunarekin, sexu-eskubideekin eta ugalketa-eskubideekin zerikusia duena ez da erabat lantzen, eta diskriminazio- edo ikusezintasun-dinamikak sortzen dira.

Hilekoa emakume gisa kategorizatutako pertsona gehienen ezaugarria bada, aldaketa fisiko eta emozionalak eragiten baditu, nork bere burua zaintzeko hainbat baliabide eta dinamika eskatzen baditu, ohikoa dela esaten badugu, ikusarazi eta arretan eman behar diogu, osasunerako eta bizi-kalitateko duen garrantzia emanaz.

Hilekoa 40 urte inguruko emakumeen bizitzaren zati da, eta laguntza ematen zaien emakumeen eguneroko bizitzan ere oso presente dago. Lehenengo hilerokotik aurrera, gorputza zikliko bihurtzen da. Hilekoa ezagutzeak aldaketak eta beharrak hautematen

lagunduko dio emakume bakoitzari: emozionalak, fisikoak eta osasunarekin zerikusia dutenak, hala nola maiztasuna, kopurua, kolorea, usaina eta dena ondo doala erakusten duten beste adierazle batzuk.

Emakumeen osasunarekin eta autozaintzarekin zerikusia duten jarduerak abian jartzen ditugunean, kontuan izan behar dugu hilekoa. "Aurretik", adingabeekin lan egiten badugu; "ondoren edo klimaterioa edo menopausia", baldin eta laguntzen diegun emakumeak fase horretarantz badoaz; "bitartean", emakume bakoitzaren ugalketa-garaian. Kontuan hartu beharko genuke, halaber, hilekoa ez duten emakumeak daudela.

Hilekoa ere eman behar diogu arreta gorputza eta ahalduntzea lantzen ditugunean. Autozaintetari dagokionez beharrezkoa izateaz gain, estrategia ere bada, emakumeek beren gorputza berregokitu eta kontrola har dezaten, beraientzat egokienak diren erabakiak hartuz.

Hilekoak beti jo da arazotzat zenbait zentzutan:

- Ez delako behar den informazioa ematen, emakumeen autoestimua murrizten eta desegiten duten zalantzak, beldurrak eta uste faltsuak sortuz;
- estigmatizatuta jarraitzen duelako higienerik ezarekin edo "ahulak" izatearen ezaugarritzat joz, eta horregatik ezkututzen delako eta lotsatzeko arrazoia delako;
- gutxietsi egiten diren aldaketa eta fisiko eta emozionalak eragiten dituelako, emakumeengan ondoeza, segurtasunikeza eta errua eraginez, eta sinesgarritasuna kenduz eta emakumeei zilegitasuna kentzeko erabiliz.
- Izan ere, ezkutatu egin behar denez, egoerak higiene-erritual batzuk eskatzen ditu, zenbaitetan deserosoak direnak, eta, horiez gain desberdintasunak eragiten dituzten baliabide ekonomikoak ere eskatzen ditu.

Hilerokoaren beharrei erantzuteko bazterketa larriko egoeran dauden emakumeen kasuan, neurri handi batean, aurreko guztiari aurre egiteko behar diren baliabideak eta azpiegiturak eman behar zaizkie. Horrek esan nahi du botere-harremana ez dela kontzientea, ez asmo txarrekoa, baina erreala dela, eta emakumeei eragiten diela, ez baitute intimitaterako espaziorik eta espazio egokirik, independentzia ekonomikorik ez dutelako, eta, azken batean, beren hilekoa kudeatzeko erabakiak hartzeko autonomiarik ez dutelako.

Interesgarria izango litzateke emakume profesionalek kontuan hartuta higiene-behar berberak izango dituztela gehienek, aztertzea hilekoa bere normaltasunez eta ezaugarritzen duen maiztasunarekin bizitzeko beharrezkoak diren elementuekin nola hornitu lan-eremua eta zentroaren dinamika bera.

Horregatik garrantzitsua litzateke:

- Erakundeak eta profesionalak prestakuntza, informazioa eta kontzientzia izatea laguntza ematen diegun pertsonekin sexualitatea, oro har, eta bereziki hilerokoa lantzeak osasunerako eta jabekuntzarako duen garrantziari dagokionez.
- Espazioak eta esku-hartzeak genero-ikuspegiaren eta ikuspegi interseksionalaren arabera birpentsatzea.
- Sexu-hezkuntza integrala ezartzea, pertsonak sustatzeko eta emakumeak ahalduntzeko.
- Emakumeen autonomia bultzatzea beren hilekoaren kudeaketan: beharrezko tresnak eskuratu eta menarkia, hilekoa eta klimaterioari buruzko informazioa ematea.
- Hilerokoari eta klimaterioari buruzko ekintza pedagogikoak diseinatzea, banakakoak nahiz taldekoak.
- Emakumeen hilekoaren osasunari buruzko ekintza pedagogikoak egiteko komunitatearen baliabideak izatea, hala nola osasun-zentroa, modulu psikosozialak, esku-hartze sozialeko elkarteak, talde feministak edo beste eragile komunitarioak.

## **2. egoera: Zerbitzuan laguntza ematen zaien gizon eta emakume baten arteko eraso.**

“Asteburuan, liskarra izan da bi erabiltzaileren artean, telebista-geletako batean. Eraso fisikoetara nola iristen den ere jasotzen dute kamerek.’ Ikusten denez, E.-k (gizona) aulkitik altxatu eta lepotik heldu zion G.-ri (emakumea), atearen markoaren kontra bultzatuz, eta hark bultzaka defendatu zuen bere burua.

Asteburuan ez da inolako neurririk hartu horri dagokionez... eta aste hasieran E. kanporatzea erabaki da, baina ez G. Zer gertatuko litzateke tartean dauden bi pertsonak gizonak balira? Biak kanporatuko lirarteke?”

---

Indarkeria portaera ikasi eta erabilgarria denez, entitateak eremu horietan lan egiten duen pertsonak sarri erabiltzen dute pertsonen arteko gatazkak konpontzeko. Indarkeria normalizatuta egoteaz gain, kalean bizirik irauteko bitarteko bihurtzen da.

Indarkeria onartu egiten da gizonen sozializazioan. Beste pertsona batzuen gaineko kontrola, dominazioa eta boterea hartzea sustatzen da. Hori guztia gizonen identitatearen parte izango da, maskulinitasun hegemonikoaren oinarria den heinean. Portaera bortitzak izan arren, gizonak estrategia gisa erabiliko dituzte bizitzako eta harremanetako gatazkei aurre egiteko. Gizona izateak norberarena defendatzeko jarrera eta portaera dakar, besteena konkistatzekoa eta kokapen soziala, estatusa mantentzekoa.

Hori gizarte-klase guztietara zabaltzen da, sozializazio-eremu guztietara, eta zuzeneko indarkeria bihurtzen da galeraren mehatxuaren edo maskulinitasuna zalantzan jartzearen aurrean.

Aztertutako kasuan, gizon batek emakume bati eraso egin dio espazio komun batean, telebista ikusten ari zirela izandako eztabaida bat dela eta. Gizonak eraso fisikoa egin dio emakumeari, eta emakumeak bultzaka bere burua defendatu eta aretotik atera da. Biek portaera bortitza dute: gizonaren aldetik proaktiboa da areto komunean emakumearekin sortutako gatazkaren baten aurrean. Emakumeak modu errektiboan jokutzen du, erasoaren aurrean defendatu egin da eta egoera saihesten du.

Emakumeok ez gaituzte biolentziaren erabiltzeko hezten, are ez da ohikoa nor bere burua defendatzeko erabiltzea ere. Kasu honetan, taldeak gizonetako larderiatazailatzat jotzen du, zeinak eraso-portaera desberdinak izan dituen hainbatetan. Bestalde, emakumeak ez du portaera bortitzik normalean, nahiz eta kolektibo honetako emakumeek indarkeria gehiago erakusten duten, kaleko biziraupenak horretara eramaten baititu.

Kasu honetan, indarkeria proaktiboa eta errektiboa berdin baloratzen badira, geure buruari galdetu behar diogu gizonetakoari zer mezu ari garen igortzen eta zer mezu emakumeari. Portaera bortitz baten eta bestearen jatorria, kausa ez da bera, eta ondorioak ere ez. Modu berean ez baloratzeak ez du esan nahi haren erabilera babestuko denik; izan ere, gure jardunak indarkeriarik eza sustatu beharko luke beti, edo gatazkak indarkeria ez bezalako estrategiekin konpontzea. Eraso gertatu zen egoera bezalakoak nola saihestu daitezkeen pentsatu beharko genuke, eta prebentzioaren ikuspegitik jardun. Ikuspegi horrek genero-ikuspegia izan behar du, eta espazioa emakumeentzat segurua ote den galdetu geure buruei, eta hala ez bada, aztertu zergatik eta nola izan daitezkeen.

Egia da erakundeetako feminismoaren esparru teorikoaren baitan helburu estrategikoetako bat biolentziarik gabeko espazioak eraikitzea litzatekeela, ez da ordea, lan erraza, ez baita soilik erakundearen eta profesionalen araberakoa, laguntzen zaien pertsonen eta bizi diren ingurunearen araberakoa ere baden neurrian. Pertsona horiek egiturazko indarkeria (etxerik gabeak, muturreko pobrezia...) eta indarkeria sinbolikoa (estigma, aporofobia...) bizi dituzte, eta, beraz, zaila da deskribatutako errealitatean bizita zuzeneko indarkeriaren erabilera deslegitimatzea... baina ez da ezinezkoa. Hala ere, ezin dugu zigorra erabili indarkeria desagerrarazteko, edo ez epe luzerako neurri gisa.

Hainbat dinamika jarri beharko lirateke martxan, lana egiten dugun baliabideetan indarkeriaren erabilera gero eta isolatuago eta ezohikoagoa izan dadin. Indarkeria sustatuko ez duen ingurune bat sortzea, lasaitasuna, atsedena, zaintza eta segurtasuna sustatuko dituena. Helburua bizitza zaintzea litzateke, pertsonak erdian jarritz.

Horretarako, funtsezkoa da galdetzea zer den beharrezkoa indarkeria gerta ez dadin. Adibidez, pertsona bakoitzak bere espazioa eta intimitatea izatea, espazio komunetan elkarreraginak gainbegiratzea pertsonak gaitasunik sozialik ez dutenean edo buru-osasunarekin edo mendekotasunarekin lotutako faktoreak ageri direnean (fiskalizatu edo autonomia kendu gabe); zigortzen ez duen araudia egotea, edo ez neurritz kanpo zigortzen duena, eta beti egotea aukera konponketa eta eskubideak itzultzeko ekintzetarako, etab.

Garrantzitsua da esku-hartze eredua errespetuzkoa eta tratu onak dituena izatea, indarkeriarik gabeko komunikazio-estiloan oinarritua. Hizkuntza horrek, bere forman eta funtsean, 0 tolerantzia adierazten duten mezuak igorri behar ditu emakumeen eta beste kolektibo batzuen aurkako bereizkeriarekiko, arrazismoa, kapazitismoa, adinkeria, LGTB+ fobia, lodifobia eta abar izan ditzaketenak. Hitzezkoa eta hitzezkoa ez dena zainduko duen komunikazioa, arreta berezia eskainiko diona erakundearen eta langile guztien eta haiekin doazen pertsonen arteko elkarreraginari.

Beste behin ere, profesional guztien prestakuntza funtsezkoa da, garatzen duten rola edozein dela ere.

### **3. egoera: Gaua igarotzeko gaueko zerbitzua bezalako espazio kolektibo batean emakumeak egoteari buruzko auzia.**

“Espazio kolektibo hau, beraientzat intimitaterik ez dagoen zerbitzu gisa ulertuta, gehienbat gizonezkoak bizi diren zerbitzu bat da, eta bere antolaketa fisikoa eta hezkuntzari dagokion esku-hartzea eurentzat diseinatuta daude. Indarkeria matxista beren bizitzaren zati izan den edo izaten ari den emakumez arduratzen gara... Gure ustez, zerbitzu hori jasotzen duten emakumeen benetako beharrak ez dira asetzen.”

---

Elkartea lanean ari da errealitate hori alda dadin, eta, horregatik, gai horri buruz hausnartzeko beharra interes handikoa da lantaldeetan. Berrito ere mahai gainean jarri du nola kaleko egoeran dauden etxerik gabeko pertsonen artean emakumeak gutxiengoa direla. Aurreko atalean adierazi bezala, guztizkoaren %10-20 dira.

Emakumeentzako aterpe-eskaera askoz txikiagoa denez, erakundeek ez dute behar adina inbertitzen. Beraz, indarkeria jasateko arriskua askoz handiagoa da, bai pertsona



ezezagunek bai bikoteek eurek, horrelakorik izanez gero. Emakumeen kasuan bikote gizona izatea ohikoa dela adierazi behar dugu, babes gisa eta substantzien edo bestelako beharren hornitzaile gisa jarduten duelako.

Baliabideak ez daude pentsatuta emakumeek erabil ditzaten, eta, eskaera dela eta, ez da harrizkoa emakumeentzako beharrak asetzen ez dituen leku txiki bat prestatzea. Espazio falta, intimitaterik eza, pertsonak dituzten bestelako arazoak, hala nola, osasun mentala eta bizikidetzaz zailtzen duten mendekotasunak, baliabideetara iristen diren pertsonak harremanak izatean duten sexismoa, eta etxerik gabeko emakumeek jasaten dituzten beste indarkeria matxista batzuk, ahultasun kognitibo, emozional, fisiko eta ingurumeneko zaurgarritasun maximoko egoerarekin batera, eremu partekatua bereziki kaltegarria da haientzat. Baliabide horiek eskuratzen dituzten gizonak normalizatu egin dute indarkeriaren erabilera. Emakumeak, ordea, horren helburu erraza dira, bereziki sexu-indarkeria (sinbolikoa eta zuzena).

Egoera hori berdintasun- eta genero-indarkeriaren aurkako politikekin kontrajartzen da; izan ere, politika horiek adierazten dute emakumeei beharrezko baliabideak eman behar zaizkiela segurtasunerako, ahalduntzerako eta autonomiarako, batez ere egoeran zaurgarrian dauden eta bestelako arazoak dituzten emakumeei. Emakume horiek dira baztertuak, batzuetan baita zerbitzu espezializatuetatik ere, hala nola genero-indarkeria kasuak artatzen dituztenetatik.

Eremu mistoek<sup>11</sup> emakumeen segurtasuna eta tratua bermatu behar dute. Pentsatzeko, hitz egiteko eta askatasunez erabakitzeke lasaitasuna emango dien leku bat eman behar diete emakumeei. Aurrekoa ziurtatzerik ez badago, eremu ez-mistoak prestatu beharko lirateke, emakumeek atsedena hartu, lasai egon, hausnartu edo erabakiak hartu ahal izateko defentsa-egoeran egon gabe, erne egon gabe edo beren mugimenduak neurtuz (emakumeek edozein unetan eta edozeinengandik eraso bat jasan dezakegun espazioetan ibiltzen garenean egiten dugun bezala).

#### **4. egoera: Klean lan egiten duten profesionalen ibilbideak.**

“Ibilaldietan, arrisku-egoerak izaten dira beti, eta egoera horien pertzepzioa pertsonaren mende dago. Konfinamenduko etxeratze-aginduaren ondorioz, 22:45era arte ateratzeari utzi genion, ekipoak arriskutsu eta zentzugabekeriatzat jotzen zuelako hori egitea. Eztabaida sortu zen mota horretako arriskuren bat nork bere gain hartu beharrezkoa ala talde-erabakia izan behar zuen erabakitzeke.”

Arriskuaren pertzepzioak ere generoa du. Bi dira funtsezko arrazoiak. Lehenengoak gizonen eta emakumeen genero-sozializazioarekin du zerikusia, eta arrisku gisa ulertzen

---

<sup>11</sup> Eremu mistoek zailtasun batzuk dituzte: gizon-kopurua emakumeena baino askoz handiagoa da, gizon-kopurua oso handia da sexismoa eta indarkeria matxisten prebentzioa lantzeko; gizonentzako espazioak berak ez du bermatzen haien segurtasuna eta intimitatea.

dugunarekin. Gizonek eta emakumeek ez dituzte arrisku gisa egoera berberak ikusten. Gainera, “arriskuan ibiltzeak” balio desberdina du emakumea edo gizona bazara. Arriskua garrantzitsua da gizonentzat eta haien maskulinitasunarentzat, hau da, zenbait arrisku hartu eta ausartegi gisa aurkeztea ausardiarekin, norberaren segurtasunarekin, abenturazalea izatearekin, interesgarriagoa eta sozialki baliotsuagoa izatearekin lotzen da; emakumeentzat, berriz, arriskuak hartzea zentzurik ezarekin edo berekoikeriarekin lotzen da. Emakumeari kontuz, neurritz, erosotasun-eremuan arriskurik hartu gabe egoteko eskatzen zaio; gainera, ez dugu pentsatu behar guregan bakarrik, baizik eta gure erabakiek gure afektu guztiei nola eragingo dieten. Erakusten digute gure esku dagoela gure ingurunearen egonkortasuna, batez ere egonkortasun emozionala. Gure erabakiak lotesleak dira gure sare afektiboko pertsonen ongizatearekin. Horregatik, gure gain hartzen dugu erantzukizunaren zati handi bat, erabaki horiek negatiboan eragiten badiete.

Bigarrenik, emakumeek beste arrisku batzuk ditugu, gizonezkoenak ez bezalakoak eta mota gehiagotakoak. Eremu publikoan jasaten dugun indarkeria handiagoa da indarkeria sexualari eta sexistari dagokionez, eta larriagotu egiten da gaueko lanaren eta zenbait gune eta ibilbideren isolamenduaren ondorioz. Beraz, gizonentzat ez da erraza beldurrik eragiten ez dienarekin eta seguru asko inoiz biziko ez duten indarkeriarekin enpatizatzea. Ez dute uste gertatuko zaienik, eta ez dute ezer egiten ez gertatzeko; emakume edo gizon izateak soilik erasotzea edo ez erasotzea eragin dezake; beraz, ulertzea ez da erraza, eta are gutxiago emakumeen tokian jartzea.

Garrantzitsua da segurtasunez lan egitea, eta horretarako kontuan hartu behar da langileek gai horretaz duten iritzia. Emakumeak segurtasunik gabe sentitzeak, eta hori ahultasun gisa hartzeak, garrantzia kenduz eta arazo gisa ikusiz, profesionalek lanerako duten konfiantza galtzea ekarriko du, eta, beraz, beren lanean segurtasun pertsonala galtzea. Gainera, lantaldearen konfiantza ere murriztu dezake.

Horregatik, funtsezkoa da emakumeak entzutea, indarkeria matxisten aurrean dituzten beldurrak zalantzan ez jartzea. Oro har, emakumeek ez dute hitzez adierazten zer gertatzen zaien edo zer beldur duten, zalantzan jartzen delako esandakoa eta horrek lan-esparruan negatiboki eragingo ote dien beldur direlako. Arrisku potentzialeko egoera bat ekartzen badute, arretaz entzun eta indarkeriari aurrea hartzeko bitartekoak jarri behar dira.

Aurrekoa ulertuta erabakiak lan-taldeak hartu behar ditu, emakumeen esperientziari balioa emanez eta berdintasuna lortzeko lan-baldintzek guztientzat berdinak izan behar dutela azpimarratuz, sexismoak eragindako desberdintasunak kontuan hartuta.

## **5. egoera: Laguntza jasotzen duen emakumeetako batek indarkeria-egoerak kontatu, eta egun gutxira, badirudi ez dela gogoratzen.**

“A.-rekin aspalditik lan egiten dugu. Harekin lan egin dugu, kalean eta ostatu hartzen zuenean. Askotan esan du taldeak artatzen duen pertsonak ere eraso egin diotela. Badakigu beti sinetsi behar dugula eta ez dugula zalantzan jarri behar, baina A.-ren kasuan zaila egiten zaigu praktikan jartzea. Askotan, bi egunera ez da gogoratzen, eta ez du gaia berriro ateratzen.”

---

Bazterketa larrian dauden emakumeekin lan egiten dugunean, haien bizitzako historian tratu txarren eta eraso matxisten esperientziak egon daitezkeela pentsatzen dugu. Era berean, pentsatzen dugu ez dutela babesik jaso eta horrek eragindako ondorioek eta beste faktore batzuek egoera honetara ekarri dituztela. Zaurgarritasuna handia da eta osasun egoera, fisikoa zein mentala, aipatu dugun bezala, oso hondatua izan ohi dute. Ohikoa izan daiteke indarkeria matxistak ez identifikatzea, indarkeria horiek minimizatzea edo ukatzea, baldin eta indarkeria erabiltzen duenaren mende sentitzen badira edo gerta badaiteke bizi izan dutena edo gertatzen zaiena koherentziaz (kontsumoagatik edo buru-osasunagatik) eta errealitatean kokatuta komunikatzerik ez izatea.

A.-rekin, talde laguntzaileak deskribatzen duen bezala, langileek ez badute ikusten erasoak, edo beste pertsona lekuko batzuk ez badaude, edo tratu txar edo erasoaren ebidentzia fisikoak ez badaude, zaila izango da argitzea esandakoa errealitateari dagokion, horrela, gertaera zehatz horren arabera jokatu ahal izango den.

Egoera horren aurrean, galdera ez da kontatzen diguna gertatu den ala ez, edo ez bakarrik, izan ere, galdera beste modu konplexuago batean planteatu behar dugu: Zer faktorek eragiten dute A. egoera hain ahulean egotea? Zer egin dezakegu egoera zaurgarria desagertzeko bidean? Zer laguntza behar du indarkeria horren aurrean segurtasun handiagoa izateko? Nola eta zer zerbitzutan lagun diezaiokete bizi izandako eta arreta jaso ez duen indarkeriekin?

Jakin dezakeguna da indarkeria-esperientzia horiek utzi dituzten aztarnak lotuta daudela indarkeriarekin eta beste pertsona batzuekin harremanak izateko moduarekin, harremanekin eta gertatzen zaiona interpretatzeko moduarekin. Hori dela eta, harekiko esku-hartzean hasten ditugun ekintza guztiek ahalduzera bideratuta egon behar dute: beren nahiak, beharrak, erabakiak, erritmoa, espazioa errespetatzea; beren errealitateaz jabetzea eta erabakiak hartzeko alternatibak erakustea; autozainketa eta segurtasuna sustatzea.

Zer gertatzen da arreta profesionalik ez duenean eta osasun mentalak ez dionean uzten bere errealitateaz eta harremanen errealitateaz erabat jabetzen?

Zer gertatzen da buru-osasun kaskarraz gain, aipatutako moduan baliabideko lana zailtzen duten kontsumoak dituenen?

Problematikek oso errealitate konplexua osatzen dute, eta, beraz, baloratu egin behar da zer den premiazkoa eta lehentasunezkoa pertsonarekin lan egiterakoan, eta aurrera egin behar da konplexutasun hori kontuan hartuta diseinatutako prozesu batean. Baina lehenik eta behin argi izan behar da zein den baliabide bakoitzaren erantzukizuna, zein diren esku hartzeko dituen aukerak (errealitate-printzipioa) eta zein helburu lorgarri eta errealista proposa daitezkeen. Gure baliabideak pertsonari erantzuteko behar diren bitartekoak ez baditu, garrantzitsua da bideratzen jakitea. Bideratzeko baliabiderik ez badago, errealitate hori onartu egin behar da, eta haren beharra hauteman adina aldiz erregistratu. Bitartean, errespetuzko laguntza eman behar da, tratu ona eta samurtasuna oinarri hartuta.

## **6. egoera: Nola jokatu eraso matxista baten lekuko izanik.**

“Zerbitzuan zegoen bikote baten arteko hitzezko indarkeria eta indarkeria fisikoaren lekuko izatea. Egun batean, gure ustez hitzezko indarkeria fisiko eta sinbolikoak muga guztiak gainditu zituen, eta gaineratu behar da gizona une hartan zerbitzutik kanporatuta zegoela.

Gizonak ezin zuenez zerbitzuan sartu, emakumeak erabaki zuen gau librea hartzea (ondoan egon nahi zuela esanez). Leihotik ikusi genuen, zerbitzuko atean, nola ari ziren gertatzen, beste eraso batzuen artean, irainak eta gizonak emakumeari egindako mehatxuak.

Une horretan, hezitzaileak kalera jaitsi ginen, emakumeari aterpetxean sartzen laguntzeko. Erabaki hori bi gaitan oinarritzen zen: segurtasuna eta duintasuna.

---

Gertaera horren ondorengo egunetan emakumeak (A.) aterpetxea bere borondatez utzi zuen, gizona ez bazegoen berak ere ez zuela jarraituko esaten baitzuen.”

Indarkeria matxistaren edozein egoeratan, lehentasunezkoa da informazioarekin, laguntzarekin eta segurtasunarekin jardutea. Horrela, erasoak jasan duen pertsonari behar duen informazioa, bere egoerarako laguntza egokia eta une horretan eta aurrerantzean behar duen segurtasuna eman ahal izango zaizkio.

Ez dago modu bakar bat indarkeriari aurre egiteko, eta ez du balioko pertsona guztientzat eta egoera guztietarako. Baina badira indarkeria kasu guztietan aplikatu daitezkeen jarraibide batzuk.

- Gure espazioan gero eta biolentzia matxista gutxiago egoteak esan nahi du indarkeria horiekiko 0 tolerantziatik abiatzea: lehenik eta behin, gertatzen diren indarkeriak detektatuz egin behar da diagnostikoa, eta, horretarako, kontuan hartu behar da zer erlaziotan gertatzen diren, zein une, zein leku eta abarretan; bigarrenik, epe labur, ertain eta luzeko helburuak zehaztu behar dira, ekintza zehatzekin horiek prebenitu, detektatu eta lehen aldiz jarduteko.
- Egoera ahulean dauden emakumeekin lan egiten duten profesional guztiek oinarrizko prestakuntza izan behar dute genero-indarkeria edo sexu-indarkeria kasuetan antzemateari eta lehenengo aldiz jarduteari buruz, bai eta biktimei laguntzeko dauden eskubideei eta baliabideei buruzko informazioa ere.
- Indarkeria-eraso edo -harreman baten lekuko edo horien berri izanez gero, indarkeria gelditzea eta indarkeria jasaten duena babestea da beti lehentasuna. Helburu horiek lortzeko, lan egiten dugun baliabidean zer egin dezakegun galdetu behar diogu geure buruari, eta jakin behar dugu indarkeria matxistetan espezializatuta dauden baliabideak eta profesionalak badaudela, haietara jo behar baita, badakitelako nola lagundu biktimari eta horretarako bitartekoak baitituzte.
- Gure presentzian eraso bat gertatzen bada, arriskuaren lehen balorazioa egin behar dugu, eta inoiz ez bakarka. Erasotzaileari interpelazioa egitea erabakitzen badugu, beti geure burua seguru sentitu behar dugu, eta aldeztu aurretik edo une berean 112ra deitu behar dugu, zuzenean genero-indarkeriaren (harreman afektibo-sexualaren testuinguruan, bizikidetzan egon ala ez) eta sexu-indarkeriaren eskura jartzen duen aplikazioaren bidez. Garrantzitsua da osasun-profesional batek laguntzea eta txosten medikoa izatea.
- Emakume batek eraso baten berri ematen badigu, egokiena da emakumea pertsona profesional batekin harremanetan jartzea (genero- eta sexu-indarkerian espezializatutako Ertzaintza, SATEVI, SMUS, Emakumearen Arloa edo Udaleko Gizarte Zerbitzuak). egoera baloratu eta emakumeari laguntza ematea, orientabide eta laguntza egokienak emanez.
- Genero- eta sexu-indarkerietan espezializatutako baliabide guztiek jardueraprotokoloak dituzte ahalik eta azkarren balioesteko eta jarduteko. Emakume guztiak artatu behar dituzte, batez ere zaurgarritasun egoeran badaude, elkarrekin laguntzen dituen emakumeen kasuan bezala.

Indarkeria matxisten aurrean ekin egin behar da, eta horretarako garrantzitsua da jakitea zein den gure baliabidearen erantzukizuna eta zein ez dagokion. Zein urrats eman behar diren eta zein eman behar diren arlo horretan espezializatutako beste baliabide batzuetatik.

Lan-eremuan indarkeria matxistak, arrotzak ez direnak, maiztasun jakin batekin gertatzen direnean, prestakuntza, informazioa eta protokoloa ezinbestekoak dira.

Behin indarkeria matxista-egoera desberdinak bizi izan direnean, batera azter daitezke eta baliabide bakoitzean bizi den errealitatearekin bat datorren protokoloa diseina daiteke. Horretan datza prozedura: ezagutza kokatu batetik landu nahi den errealitatetik abiatzen dira.

## **7. egoera: Genero indarkeria dagoenean bikotearekin esku hartzea.**

“Bikoteetan egiten diren esku-hartzeak oso konplikatuak dira, eta beti emakumeari arreta ematera jotzen dugu, ez gizonarekin lan egitera. T. eta A.-ren kasuan, A. aterpetxe batean egon denean eta T. egon ez denean, ez dugu jakin T-rekin lan egiten, hain toxikoa ez den harremana sustatzeko.”

---

Harreman batean bitartekoa indarkeria denean eta generokoa denean, esan dugun bezala, lehentasuna indarkeria gelditzea eta biktima dena babestea da. Biktimarekin lan egin ahal izango da, batez ere, emakumeak laguntza jaso nahi badu. Oro har, indarkeria-egoera baten aurrean, indarkeria pairatzen duenak neurri batean eskaintzen zaion laguntza onartzeko joera izaten du. Ondoren, batzuetan harentzat onenak iruditzen zaizkion erabakiak hartuko ditu, beste hainbestetan biezat onenak deritzonak (harentzat eta erasotzailearentzat).

Indarkeria eragiten duen pertsonarekin lan egiteko, baldintza batzuk bete behar dira:

- Egindakoa onartzea (ez ukatzea),
- egiten duena ez dela zilegi ohartzea eta larria dela konturatzea,
- biktimarekiko enpatia sentitzea,
- laguntzea nahi izatea.

Adierazten den bezala, beharrezkoak dira aitormena, kontzientzia, empatia eta laguntza-hartzaile gisa ikustea beren burua.

Zaila izateak ez du esan nahi ezinezkoa denik. Berriz ere aztertu egin behar dugu zer eginkizun dagoen profesionalen esku eta zer baliabide eskaintzen zaion.

Identifikatuta izan behar ditugu beti prestakuntza eskatzeko, kasu zehatzak kontsultatzeko edo bideratze bat egiteko eraso egiten duten gizonen arretan adituak diren baliabideak eta profesionalak.

Profesional bakoitzak bere gain hartu behar du rol profesionalagatik dagokion erantzukizuna, eta bere jarduera-esparruaren mugak ezagutu behar ditu, beste eragile komunitario eta profesional batzuekin batera.

## **8. egoera: Amatasun-rola betetzeko, rol profesionalaren ordeztuz, emakumeek ustez duten gaitasuna aipatzea.**

“Zentroan sartzen den mutil gazte batentzat emakume bat erreferentzia-pertsona gisa esleitzeko eskatzen digute. Ama-tratua versus erreferentzia-eredua?”

---

Emakumeak bokazioz ama izan nahi dutela aipatzea hala behar duen pertsona ororekin rol hori betetzeko, edo gurekin lan egiten duten pertsonak, batez ere gizonak, ama-irudi bat behar izatea, eta hori emakume profesionalak ordezkatu behar izatea, emakumeen lanbide-jardunaren ikusmolde guztiz sexista da.

Emakumeak ez gara ama. Amak dira, aitak diren bezala, seme-alabak izan edo adoptatzen dituztenak eta hazkuntzaz arduratzen direnak.

“Emakume ororen ama-izaera” aipatuz lagundu behar zaien pertsonak esleitzea, emakume izateagatik, emakumeen profesionaltasuna gutxieste da, eta, hala erabakiz gero egin dezaketen edo egin ez dezaketen rol batera murriztea, emakumea berriz ere lagunduko duen pertsonaren aldaketaren erantzule egitea. Besteak dituen gabeziak emakume profesionalarengan proiektatzea da, eta emakumea horien arduradun egitea.

Ez da mesedegarria emakume profesionalak halakotzat hartzea, baina gizonak dagokienez, heldutasun emozionalik eza betikotzen dugu, eta erreferentzia garrantzitsuak dituzten pertsonen absentzia traumatikoetan sakontzen dugu. Beren bizi-esperientzia negatiboak berregiten lagundu beharko litzaieke, eta erreferentzia berriekin lotura onak sortu, aurrera egiten laguntzeko, pertsonen, substantzien edo portaera autosuntsitzaileen mende jarraitu beharrean.



Bestalde, emakume profesionalen eta gizon profesionalen esku hartzeko moduan desberdintasunak egoteak, ez du zerikusirik ama izateko aukerarekin, genero-sozializazioarekin baizik. Emakumeek beste esanahi bat ematen diote zainketari, beste modu batera ulertu eta egiten dute. Ez dezagun ahaztu esku-hartze soziala zainketa-eremua dela. Balora ditzagun, beraz, genero-sozializaziotik eratorritako gaitasun horiek, garrantzi handikoak baitira gizarte-esku-hartzearen lan-arloan. Emakumeak enpatian eta asertibitatean hezten dira, emozionalki alfabetatzen dira eta, batez ere, emozio negatiboak kudeatzera bideratzen dira. Eskuzabalak dira bestearekin, taldean pentsatzen dute bakarka pentsatu aurretik, eta horrela ikasi beharko liratekeen ezaugarri bereizgarriekin; izan ere, oso gutxitan jotzen dute indarkeriara edo boterea erabiltzera besteak kontrolatzeko. Hurbiltasunetik laguntzen dute eta badakite behar direnean emozionalki eskuragarri egoten.

Emakumeek ez dute ama gisa jarduten beren lanbidean. Emakumeek badakite bidelagun luzeak izaten, nekaezin jarduten, behar diren aukerak emanaz. Asko dago ikasteko.

## **9. egoera: Lankide profesional bati egindako sexu-erasoaren aurrekariak.**

“Hezitzaile bati beste baliabide batean sexu-eraso egin dion gizon erabiltzailea, egokia al da erakunde bereko beste baliabide batean laguntza ematen jarraitzea?”

---

Galdera horri erantzuteko beste bat egin beharko litzateke: Gizon hori dagoen tokia eremu segurutzat hartzen al dute han parte hartzen duten emakumeek? Erantzuna baiezkoa bada, ez dira erabakiak hartu beharko emakume guztien segurtasuna bermatzeko. Profesionalena eta ez-profesionalena (boluntarioena eta laguntza jasotzen duten emakumeena). Beren eskubideak lehentasunezkoak dira: indarkeria matxistarik gabeko eremu batean lan egitea eta bizitzea, are indarkeriaren mehatxurik gabe lan egin eta bizitzea ere funtsezko eskubidea da.

Emakume profesionaleri erasoak egiten zaizkienean, zaila da bien artean sortu den gatazka batengatik soilik izatea. Hala ere, oso litekeena da zuzeneko indarkeria gertatzea errazten duten beste osagai batzuk egotea: bulkadak ez kontrolatzea, agintearekin arazoak izatea eta, batez ere, sexismoa eta misoginia. Horiek guztiak generoaren sozializazioarekin lotuta daude. Horrek adierazten du gizonak indarkeria berregin dezakeela antzeko gatazka sortzen dioten rol edo portaera duten beste emakume batzuekin. Autoritateak zalantzan jartzen du bere maskulinitasuna eta hark gizon izate hutsagatik ematen dion pribilegioa edo aginpidea.

Oro har, profesionaleri eta bereziki emakumeeri egindako erasoek osagai pertsonala izan dezakete, baina akatsa da horretara murriztea. Normala da erasoari garrantzia

kendu nahi izatea, errepikatu beharrik ez duen zerbait puntualtzat hartzea eta harreman desegoki batean edo gaizki egindako rol profesional batean sartzea.

Baina zuzeneko indarkeriara jotzen duena, laguntza ematen zaion testuinguru profesional batean, agian, jasotzen duen bakarra, “erabiltzaile” izateagatik desberdintzen dela suposatzen duena eta, oro har, profesionalaren aurrean mendeko lekua hartzen duena denean, eraso ez da gertatzen erasotzaileak profesionalarekin duen gauza pertsonalagatik, baizik eta uste duelako zilegi dela, egin dezakeela, zigorrik gabe gera daitekeela eta, edozein kasutan, uste duelako gizon izateagatik dituen agintea, boterea eta pribilegioa jokoan daudela. Gizon honek berriro egin dezake beharrezkotzat jotzen duenean, eta horregatik gainbegiratu behar da baliabideetan duen parte-hartzea edo egonaldia.

Bigarrenik, garrantzitsua da ulertzea lan egiten dugun eremuetako eraso batek, eraso jasaten duen pertsona emakume profesionala bada eta laguntza ematen dion gizon batek eraso egin badio, emakume eta profesional gisa duen autoestimua kaltetzen duela. Gainera, gertaerak eta ondorengo erreakzioak beragan ez ezik, profesional guztiengan du eragina, eta modu desberdinean emakume eta gizonengan. Hori dela eta, egoera horri behar bezala aurre egiteko, gertaera ez dugu azkar eta askotan baldar konpondu beharreko zerbait bezala ikusi behar. Indarkeriak aztarna uzten du biktimizatuarengan, erasotzen duenarengan eta ingurunean, esan bezala, lan-giroan. Indarkeriari aurre egiteko jarrerak, erabakiek eta horiek hartzeko moduak, eta une horretatik aurrera egiten den ekintza bakoitzak ere eragina izanen du eragile berengan. Erasorearen erantzuleak erantzukizuna bere gain hartzera bideratutako prozesutzat hartu behar da, baita erakundearen erantzukizuna ere, birbiktimizaziorik egon ez dadin eta ez errepikatzea bilatu dezan, eta biktimaren eskubideak konpondu daitezzen. Ekintza horiek gainerako profesionaleri eta lan giroari ere eragingo diete.

## **10. egoera: Emakume hezitzaileei hitz egiteko gizonak erabiltzen duten hizkuntza.**

Hezitzaileei “erregina”, “guapa”... esaten dietenean, amorrutik gehiago ekiten dugu hezkuntza-ikuspegitik eta aspalditik ezarritako ohiturak aldatzearen ikuspuntutik baino.”

---

Emakumeak ezizenekin edo kalifikatzaileen bidez izendatzeak inplizituki dakar existitzen ez den konfiantza hartzen dela, segurtasun pertsonaleko espazioa modu sinbolikoan zeharkatuz. Banakotasuna kentzen zaie eta balioa kentzen zaie, emakumearekin eta haren rol profesionalarekin zerikusirik ez duten zenbait ezaugarri edo estereotipori lehentasuna emanez, eta, azkenik, emakumeari lan-harremanaren eta -testuinguruaren esparruan indarra kentzen zaio.

Bai, hizkuntza, hitzak eta esamoldeak, ezartzen den komunikazioa funtsezkoa da talde-giroa eta pertsonen arteko harremanak sortzeko, ekitatea, errespetua, begirunea eta bestearen aintzatespena oinarri hartuta.

Gizonak emakumeengana hizkuntzaren erabilera sexistaren bidez zuzentzean permisibitatea egoteak, beste indarkeria matxista mota batzuetarako haztegi egokia ezartzen du modu sotil baina etengabe. Sexismoarekiko eta misoginiarekiko tolerantzia-atalasea handiagoa izaten hasten da indarkeria sinbolikoaren bidez, eta komunikazioa da haren ardatz nagusia. Horrela hasten da normalizatzen eta onartzen, garrantzia kenduz edo zuzenean ukatuz.

Indarkeria matxistei aurrea hartzeko ekintza zehatzak ezarri nahi badira, plano sinbolikoa garrantzitsua da, erakundearen kultura sortzen baitu. Hizkuntza ez-sexista eta inklusiboa erabiltzeak loteslea izan beharko luke elkarteko komunikazio maila guztientzat.

Proposamenak: Hizkuntza inklusibo ez-sexistaz hitz egitea indarkeria matxisten prebentzioaren sinonimo da.

- Elkarrearen baliabide guztietan, haietan sartu baino lehen, parte hartuko duten pertsonekin hitz egitea hizkuntza inklusibo ez-sexista betebeharrak eta eskubidetzat aurkeztuz. Laguntza jasotzen duten pertsonak ez ezik, gainerako lankideek ere modu ez-sexistan hitz egin behar dute.
- Profesionalentzako eta laguntza jasotzen duten pertsonentzat espazioak sortzea beste tailer edo hitzaldi batzuk antolatzen diren moduan.
- Egoera sexistak gertatzen direnean, horietan gelditzea, dagokionari deitzea edo erabakiak hartzea, egoera larriagotzen bada.

## **11.egoera:Emakumearengorputzariburuzkoerreferentziak, emakumearen hipersexualizazioa, hainbat baliabidetan lagundutako gizonen egina.**

“Permisibitatea, mutil heteroen elkarrizketetan kokatzen diren eta zentrotik kanpoko bizitzarekin bat datoz emakumeen gorputzaren eta sexuaren inguruko iruzkinekin.”

---

Zentroetako bizitzak gure gizartearen errealitatea islatzen du, eta ez du horregatik garrantzia gutxiago. Izan ere, gizartea aldatzeko, gure eguneroko praktikak goitik behera aldatu behar ditugu, gero eta leku gehiago eta, beraz, gero eta pertsona talde gehiago egon daitezkeen harremanetan modu ez-sexista batean.

Aurreko puntuan hizkera inklusibo ez-sexista indarkeria matxistei aurrea hartzeko tresna nagusia zela adierazten bazen, adibide honetan indarkeria sinbolikoari gehiago dagokion adierazpen bat ageri da, eta hori murrizteko lana egin behar dugu.

Beharrezko mekanismoak ezarri behar dira, baliabideetan parte hartzen duten pertsonak jakin dezaten emakumeei buruz sexu-objektu gisa hitz egitea, gutxiestea edo hitzez bortxatzea ez dagoela baimenduta, beren eskubideak urratzen dituelako. Elkartearekin harremanetan jartzen diren momentutik, zergatiak ezagutu behar dituzte, baita ondorioak ere. Laguntza ematen zaien pertsonekin egiten diren harreretan, hainbat jarraibide ezartzen dira baliabideko elkarbizitza egokia, errespetuzkoa eta solidarioa izan dadin. Aztergai dugun gaiak bat gehiago izan behar du. Protokolizatu egin beharko litzateke: noiz, nola eta nor landuko duten gai hau, bereizkeriarekin zerikusia duten beste batzuekin batera.

## 6. BIBLIOGRAFIA

- Carrasco Florido, L. *Mujeres sin hogar en España: un análisis sociográfico desde una perspectiva feminista*, Master amaierako lana, Instituto de Investigaciones Feministas, Universidad Complutense de Madrid, Madril, 25.9 (2014): 22. or. 2022ko martxoak 12
- Fernández-Rasines, Paloma, & Tamara Gámez-Ramos. "La invisibilidad de las mujeres sin hogar en España." *Revista de Psicología* [On line], 22.2 (2013): 42-52. or. Web. 2022ko martxoak 12
- Gonzalez, P. & Castillo, M<sup>a</sup> D. *Sucesos vitales estresantes, afrontamiento y personalidad*. 11<sup>a</sup> Congreso Virtual de Psiquiatría. Interpsiquis. (2010): 1-15 2022ko martxoak 12. Hemen eskuragarri: <<http://www.psiquiatria.com/articulos/ansiedad/estres/45479/>>.
- Lazarus RS & Folkman S., *Stress, appraisal, and coping*. New York: Springer Pub, 1984.
- Matulic-Domandzic M. V., De Vicente-Zueras I., Boixadós-Porquet A., eta Caïs-Fontanella J. «Las Mujeres Sin Hogar: Realidades ocultas de la exclusión residencial». *Trabajo Social Global-Global Social Work*, 9, bol. 16. zk., 2019ko ekaina, 49-68. or., doi:10.30827/tsg-gsw.v9i16.8198. 2022ko martxoak 12
- Sánchez, M. Solo Luna. Treinta cartas a una dama sin hogar. Madril: Fundación RAIS, (2007): 64.
- Subirats, J. (zuz.) *Pobreza y exclusión social. Un análisis de la realidad española y europea*, Fundación La Caixa, Colección Estudios Sociales, Bartzelona, 2004, 16: 184 or.
- Vázquez, J. J., Panadero, S., Iborra, A., Marín, C. eta Martín, R. (2011) Resultados preliminares del proyecto *Estudio de la incidencia de los sucesos vitales estresantes, atribuciones causales y estereotipos en los procesos de exclusión inclusión social de las personas sin hogar*. Comunicación presentada en el "VI Congreso Chileno de Psicología". Santiago de Chile (Txile), 2011ko azaroak 9-11.
- Vázquez, J. J., Panadero, S. eta Martín, R. M., Regional and national differences in stressful life events: *The role of cultural factors, economic development, and gender*. *American Journal of Orthopsychiatry*, 2015, 85, (392-396 or.).
- Vázquez Cabrera, J.J., Rodríguez Moreno, S.I., Roca Morales, P. eta Panadero Herrero, S. *Sucesos vitales estresantes en mujeres en situación sin hogar*. En *Mujeres e investigación. Aportaciones interdisciplinares: VI Congreso Universitario Internacional Investigación y Género*, Sevilla, 2016, (611-624 or.).



